

**uk**  
99. zenbakia / 2006 maiatzak 7





## MAIATZA 19-20-21 MAYO (2006)



Orduetgia/Horario:  
11:00-14:00, 17:00-21:30

Sarrera/Entrada:  
2 €

AREETAKO GELTOKIA PLAZAKO KARPAN // CARPA DE LA PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS

Beste sarrera bat duan BBK 26 kartela edo unibertsitate karteta aurkeztuz // Otra entrada gratis presentando la tarjeta BBK 26 o carnet universitario

Logos of sponsors: BBK, metro bilbao, EL CORREO, Getxo.




fig 1. Diseño basado en una obra de David Arteagoitia.

## UK galeria > Alfredo Aldai



Bere bizitza osoa prentsa argazkilaritzari lotua eman du Alfredo Aldaik (Bilbo, 1955) bere hitzetan "Bilbon jaioetako algortarra". Fotografia industrialia ikasi zuen eta segituan *Egin* egunkarian beharriari hasi zen. Han makina bat urte eman eta gero *Gaceta del Norte* ibili zen. Ondoren *El País* egunkarian hiru urte eman zituen. Orain dela bost urtetik ona EFE berri agentziaren argazkilaria da. Guztira 30 urtetik gorako ibilbide profesionala. Zer esanik ez, UK aldizkarian ere argazki asko argitaratu ditu.

Bere lanak ere sarituak izan dira: Foto Press Bigarren saria eta Ohorezko Aipamena politika eta gizarte atalean (1987); Foto Press Lehenengo sari bi (1988 eta 1989) kirolen atalean, Kataluniako Generalitatearen Lehenengo Saria kirolean (1991).



Punta Luzeroko haize-errotak

«Lunes y martes, ezin egon artez» Euskal esaera zaharra

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Uribe Kosta tropikala. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Leioako Sakonetako haritza 1959-2006.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Zuriñe Murgia.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Lehenengo sanisidiroak, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Gargantua Plentzian, XIX. mende akabua.
30. BERBETAN. Gotzon Garate, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Getxoko Andra Mari eliza.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Fant jaialdia.
43. MUSIKA. Ehiztari taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Paul Auster euskaraz. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Fadura Igeriketa taldeko laukotea.

### EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Paul Rios.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Leioako Haritzpe kafetegira.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Jokin tabernako mus txapelketa, 1979.
54. AITORMENAK. Javi Casas.



30 Gotzon Garate



11 Zuriñe Murgia

### Berbetan

Atxagarekin batera euskal idazlerik irakurriena da Gotzon Garate. Euskal Filologia ikasketak berak abiatu zituen lehenengoz orain 30 urte.



46 Paul Rios



34 Andra Mari eliza



14 Begoña Aginako



54 Javi Casas



## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBI/BIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezcaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Akaizte Kamuruaga, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Ixasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
---	--

	<p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>	
--	--	--

	<p>Aldizkari honek Erandioko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>	
---	--	---

	<p>Aldizkari honek Gortzoko Udaltzaren dirulaguntza jasotzen du</p>	
---	---	---

	<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

	<p>Aldizkari honek Eroski Fundazioaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

	<p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p>
---	---

# gugeu

## Oh! Andra Mari

**Ez dugu ondo hasi** editorial xume hau. Izan ere, gure ustez azken urteotan txarto deitzen hasi dira Getxoko auzo hau. Auzoaren izena, berez, Getxo izan da betidanik. Hiru izan dira herriko auzo nagusiak: Areeta, Algorta eta herriari izena ematen dion Getxo. Ez esan Getxoko seme-alaba bati Andra Marikoa denik, haserratuko zaizu eta. Andra Mari, edo negargariagoa den Santa Maria de Getxo, ezer bada inmortaliaren asmakizuna da.

Aurrekoa aipatu dugu konturatu barik UK-ren azken zenbaki hau oso getxoztarra atera zaigulako. Laster dira ospatzekoak Getxon sanisidroak (maiatzaren 15ean) eta *Album* atalera (26-27 orrialdeak) aspaldiko San Isidro jaietako argazkiak ekarri ditugu. Oso jai erruralak ziren, izan ere, Getxo betidanik izan da herriko baserriaren auzoa, eta San Isidro bera ere, baserriaren santua da. Bestetik, Getxo elizaurrea da eta herri osoa Andra Mari elizaren inguruan sortu zen. Eliza horretan 1960ko hamarkadaren akabuan egin ziren zaharberitze lanen argazkiekin bete dugu fotografia atala.

Getxo, zer zinen, zer zara eta zer izango zara? Aldizkari hau egiten dugun lantalde erdia-edo Getxoko seme-alabak gara -eta ez Algortakoak, kontuz gerol- eta ezinbestean ezin objektiboak izan. Herriko landetan olgatu gara txikitari, txinberarekin ateratzen ginen etxetik txori bila, gure amak zertan larritu barik futbolearen jokatzeko gure errepidean, zapaburuak harrapatzen genituen putzuetan, tomateak ostu soloetan... Gure auzoa zer bihurtu den eta zer izango den ikusita (zelai berdeak luxuzko etxe bihurtu dituzte eta laster 8.000 etxebizitza berri eraikiko ei dituzte), ezinegon ikaragarria jabetzen da gutaz. Ezagutu eta bizi izan ditugun bazterrak eta mundu oso bat (hizkuntza bera ere) zelan galdu den lekuko gara. Hoberako izango ete da?

UK-ko lantaldea


### irakurleak

**Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37**

### matematika aplikatua



# Goizero irakurri > berria



[irudia]

ALGORTA, 2006KO APIRILA

**Uribe Kosta tropikala** / Orain dela ehun bat urte landatu zituzten Usategi parkeko palmondoak eta ehun urte egon dira Kantauri itsasoari begira, geldi-geldirik, agian ur hotz horiek Karibekoak izango ei diren euren buruei galdetuz. Baina, orain dela ez asko, eurerarik bati bizia erditu diote eta bere handitasuna eta dotorezia betirako ebaki. Euriari, haizeari eta elurrari gailendu zaio, baina, hainbeste urteren buruan, ezin izan dio gizakiari aurre egin. m / Argazkia: **Asier Mentxaka**





goitik\_behera\_berriturik  sareko ARGIA



[lehen]

KULTUR LEIOA



[orain]

ASER MENTAKA

### Iraganez doa denbora\* beti / SAKONETAKO HARITZA 1959-2006

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



**uribitakora** > gauzen kanposantua

Getxoko zabortegia aspaldiko irudi batean

Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Gizaki orok barraskilotik badauka zerbait, bederen pasatutako lekuetatik marka uztea nabarmen. Inork laguntza eskatzen badu, berdin kanpoan zein hemen, bizkarra emanda kontzientziak lasai hartzen du atsedean; zabortegia betetzen, aldiz, zein solidarioak garen!

Hamar eskolen paperak eta hamar neskaren konpresak, hamar lagunaren hamar kartera, hamar tabernen zerbezak, komiki baten hamar irudi, hamar puzzleren piezak, DVDak, sakelakoak, ireki bako sorpresak... hartu orduko botatakoak ez dira soilik kleenexak

Zabor alezko dunen desertsu, kaio beteko gerizpe, makina bat gai, hamaika gauza, ehunka zera, mila traste... pilatu eta mendi eginda mendian uzten dituzte; horretarako ordaintzen dena asko ez denik ez uste, bada zaborra lgeretxeko suitean sartzeko beste.

\* Doinua: Ursus Tibetanus

**txistea** > elefantearen esana


-Zer esaten du elefante batek, gizonezko bat biluzik ikustean?  
-?!  
-Eta nola moldatzen zara ura edateko?

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

**sukaldaritza** > Sabin Arana getxoztarra New Yorken

Sabin Arana Jolastoki jatetxeko sukaldaria da

**Sabin Arana** Getxoko Jolastoki jatetxeko sukaldariak Nazio Batuen Erakundeko (NBE) jantoki nagusian, New Yorken, egingo den Chef's Table jaialdian menua eskainiko du maiatzaren 11n, Bizkaiko beste sukaldari batzukaz batera. Guztira, zazpi izango dira euskal jakiak prestatuko dituzten profesionalak: Bilboko Arbola-Gaña jatetxeko Aitor Basabe; Zamudioko Gaminiez jatetxeko Aitor Elizegi; Sheratongo Jose Miguel Olazabalaga; Guggenheimgo Josean Martinez; Galdakaoko Andra Mariko Isidro Arribas; New Yorkeko Tia Pol jatetxeko Eder Montero eta Sabin bera. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak antolatutako ekimenean euskal produktuak, Bizkaiko txakolina eta Arabako Errioxako ardoa izango ditu lagun sukaldari getxoztarrak eta enbaxadoreak zein kazetariak izango dira bere luxuzko bezeroak. m

**ardoa** > txakolin dastaketa Berbalamiñe euskara elkartean

Txakolin dastaketan parte hartu zuten Berbalamiñeko lagunak

**Joan den apirilaren 20an**, txakolin dastaketa antolatu zuten Leioako Berbalamiñe Euskara Elkarteko lokalean. Ekintzaren inguruan euskal jendea bildu eta euskara sustatzea gura zuten antolatzaileek. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak etnologo bat bidali zuen elkartera eta 16 bat pertsonak hartu zuten parte ikastaro txikian. Berbalamiñekoek txakolin mota ezberdinak eta pintxoak dastatzeko aukera izan zuten. Horrez gain, hurrengo egunetan bestelako ekintzak abian jarriko dituztela jakinarazi dute arduradunek eta deialdi berezia egiten diete inguruko euskaldunei: masaje tailerra, txitxiburduntzia, etab. Parte hartu gura duen orok, ez du zertan bazkidea izan, elkarteko telefonora (695 753 110) deituz besterik ez du. m

saiaszgetaria



HOTEL

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



..haria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / t. (+34) 943 140 143



**dirua** > kanpoko kutxen inbasioa

**Beste erkidegoetako kutxek**, dagoeneko, EAEko aurrezki kutxen herena dira; beraz, estatuko bulegoek orain dela hamar urte lurralde osoan zabaltzeko hartutako erabakia igartzen hasiak gara. Hartara, ugariak dira Uribe Kostan aurki ditzakegun kanpoko kutxak: La Caixa, Caja Madrid, Caixa Galicia... EAEko merkatua oso erakargarria egiten zaie (etxebizitzaren garestitasuna eta enpresa txikien ugaritasuna dela-eta) eta, jadanik, 233 dira zabalduetako bulegoak. Azpimarratzekoa da, gainera, CANek ere EAEn hedatzeko egingo duen ahalegina; izan ere, euskal kutxek (BBK, Kutxa, Vital Kutxa eta CAN) bestearen lurraldea ez inbaditzeko ahoz hartutako akordioa apurtu du CANek eta bulegoak laster irekitzekotan da, besteak beste, Algortan. m

Algortako Amesti inguruan aurki ditzakegun kutxak

**argazkia** > Leioako kiosko zaharra

**Errepikatutako irudia den arren**, argazkiak azalpentxo bat merezi duela uste izan dugu, istorio polita gordetzen du-eta. Kioskoa herritarren artean eraiki zuten, osasun arazoak zeuzkan leioaztar bati lana emateko asmoz. Erretratua, berriz, inaugurazio eguneko da, 1959. urtekoa. Egun hartan dena prest zegoen: auzokideek aldiriz bete zuten kioskoa eta hura bedekatzeko herriko abadea eroan zuten. Halaber, herrian zehar paperak zabaldu zituzten ekitaldiaren berri emateko eta jende ugari biltzea lortu zuten. Denboragaz, orotariko gauzak saltzeko dendatxo bihurtu zen kioskoa eta Bilbotik ekarritako barazkiak saltzeaz gain, galtzerdiak ere konpontzen zituzten. m

Leioako haritz ezagunaren pean zegoen kioskoa



“Badago lanik, jendeak irakurri egiten du; hau da, baditugu asko irakurtzen duten bezero finko batzuk”

**Zuriñe Murgia** > Orixako liburu dendakoa

**Lantzean behin** plazaratzen diren azterketen arabera, Zuriñe Murgiaren lanbideak ez dauka etorkizun onik. 28 urteko berangoztar hau 2003tik dago Orixako liburu dendan beharrean, Algortan. Ez da, zeozer saldu gura duenarentzat, lan-eremurik goxoa, eta horren frogara da, esaterako, orain gitxi Kurkudi liburu dendara itxi izana. Zuriñe Murgia, hala ere, lasai dabil, Orixako ei da-eta eskualdeko liburu dendarik sendoenetakoa, oraindik dirautenetatik. “Badago lanik, jendeak irakurri egiten du; hau da, baditugu asko irakurtzen duten bezero finko batzuk”. Bizi, hala ere, ikas-liburu saltzetik bizi dira, Murgiak dioskunez, “edo bestela, eskoletan ikasleei irakurtzeko agintzen dizkieten liburuetatik”. Poesiarako, antza, ez dira horren garai onak, ez dira sekula izan diru-kontuei dagokienez behinik behin. Askok ez ei du inoiz irakurtzen, ezta tomate latarren etiketa ere. Murgia ez da horren eredu, jakina. Gustuko dauka begiak orriari itsastea, eta ederto erabiltzen du lanbideak horretarako emoten dion aukera. Ia derrigortuta, gainera. “Atentzen diren liburu berri gehienak irakurtzen ahalgintzen naiz-azaldu digu-, gero erosleei gomendioak egiteko, itaundu egiten didate eta. Hori bai, ez dut egundoko literatur-kritikarik egiten, apalago nabil. Eta dena den, literaturaz asko dakiten apurrek erabakita edukitzen dute zer erosi dendara sartu orduko”. Azken boladan *The Da Vinci code* eta enparauakaz betekada itzela hartu duela aitortu digu; atsedena liburu “literarioagoetan” bilatzen dabil orain: “*Japoniakoak, Paul Auster...*”. Bestela, idazle kutunena duen Gabriel Garcia Marquezengan bila lezake aterpea, gura izanez gero. Ez da, ez, aukera txarra. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**



## AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailean

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86





# Getxoarteko jauzi-ohola prest!

**Hilaren 19tik 21era** Areetako Geltoki plazako karpapean **60 artista** gazteren sormenak eta **arte sortu berrien joerak** ikusgai egongo dira **54 erakusmahaitan**

Adierazpen plastiko eta ikus-entzunezko bidezidor berriak ezagutzeko aukera eskaintzen du Getxoartek urtero lorailean. Loratzear dauden joeren eta artisten jauzi-ohol interesgarria bihurtu da Getxoko Arte Sortu Berrien Aretoa eta ekitaldiz ekitaldi zale eta sortzaile gehiago erakartzea lortu du.

2000 urteaz geroztik artista gazteen zein arte sortu berrien lorbiderako atari legez aurkezten du bere burua Getxoartek. Getxoko Arte Sortu Berrien Aretoko atek hilaren 19, 20 eta 21ean egongo dira zabalik Areetako Geltoki plazan.

Urterik urte begirada gehiago bereganatzen ditu Getxoartek, iaz 6.500 lagun hurreratu ziren Areetako Aretora. Aretoa parte hartzeko artisten eskaerak ere gorako joera izan dute urtean zehar, aurreko urtean 184 eskakizun jaso zituzten; aurten, ostera, 193. Hala, 2006ko Getxoartek sortzaile gehiagori emango dio aukera, eta orain arte 50 erakusmahai ipintzen bazituzten aurten 54 jarriko dituzte (16 metro koadroko 46 stand eta beste 8ak 8 metro koadrokoak). Taldeka zein banaka, denetara, 60 artisten lanen erakusleho izango da Areetako artearen Aretoa.

Kultur Etxeko arduradunen esanetan "aurtengo Getxoarten bereziki euskal artea ikusi ahal izango da", artista gehienak euskal herritarak direlako, 44 hain zuzen ere, eta horietatik 27 bizkaitarrak dira. Euren artean gure eskualdeko 16 ordezkari izango dira: 7 getxoztar, 5 leioaztar, 2 berangoztar, eta barrikar eta sopoloztar bana. Gainontzean, urrutetik heldutako



Maitane Moreno eta Laida Muruzabal artisten lan hau Getxoarten ikusi ahal izango da

sormen-lanek ere izango dute lekua eta berbarako, argentinar, ekoardotar edota alemaniar jatorriko sorkuntzak erakutsiko dira.

**«Urterik urte haziz doan ikus-entzunezko eta arte plastiko berrien erakuslehoia»**

## Katalogoa

Adierazpen plastiko eta ikus-entzunezko bidezidor berriak ezagutzeko aukera emango du beste behin Getxoartek: margoak, performantzeak, eskulturak, argazkiak, marrazkiak, grabatuak, bideoak, instalazioak... eta antolatzaileek adierazi moduan "hurbilen daukagun arte garaikidearen egitura osatzen duten gainerako adierazpenak". Eta ohi legez partehartzaile guztien datu, ibilbide eta lanak batzen dituen kata-

logoa osatuko dute Getxoarteko arduradunek.

Horrenbestez, artezaleak, sortzaileak, bildumazaleak, profesionalak eta abarrek badaki non daukan hitzordua. Artistek prest daukate "harrapakina" eta "amua", eta ziurrenik guztiak helburu "arrantzale" modura bizitzea, ia ba arrainjaleak gose diren! m

## Datu batzuk

- 193 eskaera jaso dituzte.
- 60 sortzailek parte hartuko dute.
- 54 erakusmahai ipiniko dituzte.
- 6.500 lagun hurreratu ziren iaz Aretora.
- 44 artista euskal herritarak dira.
- 16 sortzaile Uribe Kostako ordezkariak.
- Sarrera orokorra: 2 euro.
- Katalogoa egingo dute partaideen datuakaz

## Igogailuaren gorabeherak

Txartel salgailuek arazoak eman dituzte



Zeresana eman duen Ereagako igogailua

Ereagako hondartza eta Algortako Maria Cristina parkea lotzen dituen igogailua eztabai-dagai bihurtu da berriro ere. Igogailurako txartelak saltzeko edota balioztatzeko makinek arazoak ematen jarraitzen dute, ondorioz batzuetan erabiltzaileek bidaiatxartelak txarteldegian erosi behar izaten dituzte, eta Udaletik adierazi dutenez "Aste Santuan hainbat txartel dohainik eman behar izan zituzten balioztatzeko makinek matxuraren bat izan zutelako". Ondorioz, arazo eta matxura horiek guztiak direla eta, Getxoko Udalak igogailuaren lanengatik ordaindu barik zeukan zenbatekoa ez ordaintzea erabaki du; gutxi gorabehera 600.000

eurokoa da kopuru hori. Bide batez, gogora ekarri, Udalak ia 1,4 milioi euroko inbertsioa egin zuela igogailua egiteko.

Laster, datorren hilean beteko da urtea igogailua martxan ipini zutenetik, eta erabiltzaileen kopuruari dagokionez ezin esan egitasmo antzia izan denik. Halaber, aipatutako arazoez gain, beste kexa batzuk ere jaso ditu, barbarako: geldialdi laburrak eta igogailu barruko tenperatura altuak. Lehenengoaren inguruan mota horretako azpiegiturek izaten dituzten bezalakoak direla adierazi dute Udaletik. Bigarren arazoari buruz, hazgailua paratu zuten, baina oraindik ez ei zaio beroari guztiz gailendu. m

## ZEBRABIDETIK IGAROTZEN EZ DIREN OINEZKOEK ISUNA JASOKO DUTE

Errepidea txarto zeharkatzen duten oinezkoei isuna jarriko die Getxoko Udaltzaingoa maiatzetik aurrera. Orain arte, abisuak besterik ez dituzte eman, baina aurrerantzean semaforoa gorri dagoela edo zebraiderik ez dagoen lekutik kalea zeharkatzen dutenek 190 eurorainoko isuna jasoko dute. Eusko Jaurlaritzak hasitako kanpaina amaitu den arren, neurriak hartzen jarraituko du Udalak.

## ESKALADA IKASTAROA ANTOLATU DU GAZTE BULEGOAK

Maiatzaren 13tik 21era arte eskalada ikastaroa eskainiko du Getxoko gazte bulegoak. Ekintzak euskaraz zein gaztelaniaz burutuko dira eta 12-17 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta daude. Ikastaroa Santa Marinako haizetan (Urduliz) izango da. Informazio gehiago: 667 600 740.

## MUSIKA ETA MARRAZKI LEHIAKETAK ERROMON

Musika taldeen eta marrazkien lehiaketan izena emateko epea ireki du Erromoko eta Pinuetako Jai Batzordeak. Parte hartu gura duen orok, beraz, maiatzaren 2tik ekainaren 2ra arte izango du apuntatzeko, Erromoko, Santa Eugeniako zein Pinuetako kultur etxeetan. Musika lehiaketako irabazleek jaietan jotzeko aukera izango dute eta marrazki lehiaketara aurkeztutako lan guztiakaz erakusketa bat egingo dute.

Bilatu zure Renault "km 0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

[www.seminuevosengetxo.com](http://www.seminuevosengetxo.com)

**BILBO BERRI**  
Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81



# Udalekuak

Haurrentzako egonaldiak antolatu ditu Bizarra Lepoan elkarteak

**Badira** lau urte Bizarra Lepoan Euskara Elkartekoek ekaina eta uztaila bitartean udalekuak antolatzen dituztela. Egonaldiak irekiak izango dira, 5-12 urte bitarteko umei zuzenduta daude eta Algortako zein Erromoko eskolatan burutuko dira.

Izena eman gura duen orok Getxoko Udaleko webgunetik ([www.getxo.net](http://www.getxo.net)) orri jaitsi eta elkartera eraman edo zuzenean bulegora jo beharko du. Horretarako epe bi zabaldu dira: bata, elkarteko bazkideentzat (maiatzaren 1etik 15era arte) eta, bestea, bazkideak ez direnentzat (maiatzaren 16tik 31ra arte). Ordaindu beharreko kopurua, berriz, aukeraturako txanden arabera izateaz gain, bazkideentzat merkeagoa izango da. Informazio gehiago eskuratzeko: [www.blogari.net/bl](http://www.blogari.net/bl) edo 94 4 914 357 telefonora deitu. m



## GETXOKO HONDARTZA TXAPELKETEN XV. URTEURRENA

15 urte beteko dute aurten Kirik kooperatibako begiraleek BBKren eta Udalaren laguntzagaz Ereagan antolatutako hondartza txapelketek. Aurten zarpiko futbola hare bustian eta seiko boleibola hare zikuan jokatu dira, maiatzaren 6tik 21era, itsasaldien arabera. Adin eta sexu guztietako jendeak hartu ahal izango du parte txapelketan eta irabazleek Meakaur aterpetxe berrian asteburu bat igarotzeko aukera izango dute. Informazio gehiago gura izanez gero: 944 911 746 edo [www.kirik.com](http://www.kirik.com).

## Begoña Aginako > Zutitu elkarteak

“Heziketa espezializatua eta ezinduentzako gunea defendatzen ditugu, gela egonkorra ez”



Elkarteagaz harremanetan jartzeko: 607 732 487

**lazio ekainean La Olako ikasleen guraso batzuen ekimenez sortu zen ezinduen aldeko elkarteak momentuz Bizkaian jardungo du. 60 bat gurasok osatzen dute elkarteak eta bazkide askok egin dute bat eurekaz. Beste elkarte batzuk harremanetan jartzeko asmoa dute lehian sartzeko.**

—La Olaren itxierak eraginda sortu da Zutitu?

—Elkarteak sortu zen BBK-k heziketa bereziko eta terapeutikoko La Ola zentroa ixtea erabaki zuenean, beno ezindu nagusientzat bakarrik bideratuko du. Ondorioz, 5 neska-mutil kalean gelditu dira. Aldundira, Hezkuntza sailera... jo genuen eta inor ez zen arduratu, Aldundia adin txikikoak direlako, eta Hezkuntzak barnetegiaren kontua ez duela bultzatu gura, ezta hasiera batean heziketa bereziko eskola ere; beraien integrazio (gizarteratze), orain inklusio, legearen aurka doalako. La Ola ezintasun mota guztietakoak hartzen dituen zentro bakarra da Bizkaian, badi-ra beste zentro batzuk baina ezintasun jakin bat dutenentzat bakarrik dira. Beraz, itxiko dutenean ez dugu ezer ere edukiko; Hezkuntzatik zentro arruntetan integrazioa eta

gela egonkorak eskaini dituzte. Gehienak pasa dira integrazioetik edo geletatik, eta gure ustez ez dituzte umeen beharriak betetzen. Badakigu ez daukala konponbide errazik, baina ez dute horren kontzientziarik edo politiko legez duten ideiak familienak alderatuta oso ezberdinak dira.

—Zein da zuen erronka eta proposamena?

—Heziketa espezializatua defendatzen dugu eta ume ezinduentzat gune bat, ez gela egonkor bat. Heziketa bereziko eskola bat eraiki gura ez badute atzerakoia dela iritzi diotela, ez dakigu zergatik, gutxienez zentro arruntetan eremu zabal bat egoki dezatela. Adimen urritasun baxua daukatenak zentro arruntetan agian ondo integra litezke. Alabaina, urritasun handiagoa daukatenen beharriak hor ez dira betetzen hor, ez bada baliabide eta profesional denak jarri, eta ume bakarrarentzat hori guztia egingo dute? Badakigu gaiak ez daukala kon-

### «Seme-alaben hezkuntza sistema hautatzeko aukera izan beharko genuke»

ponbide errazik, gainera elkarteek urte asko daroate integrazioaren alde lanean. Ez dago mamituta, baina berbarako, Bizkaian 3 eskola publikotan solairu osoa eskaini, beharrezko profesional guztiak, inklusioa bultzatu eta arreta berezitu eta egokiaren auzia konponduko luke. Heziketa bereziko zentroak euren aburuz ghe-toak dira eta gizarteratzearen kontrakoak, baina gelak baino gune handiagoak eskaini beharko dizkigute. Eta hautatzeko aukera izan beharko genuke: heziketa bereziko eskola ala inklusio heziketa zentro arrunta. Seme-alabentzat egokien deritzogun hezkuntza sistema hautatzeko aukera eduki beharko genuke, eta orain ez daukagu. Heziketa bereziko zentroa eskatzeagatik atzerakoiak gairela esan dezakezue, baina haiek aukera bakarra eskainiz frankistak direla esan liteke. Ez gaude inola ere integrazioaren aurka, baina zentro arruntek eta gelek euren beharriak betetzen ez dutenentzat heziketa bereziko zentroaren eta heziketa espezializatuaren alde ere bagaude. m

# Getxo Antzoki berrirako aurrekontua 22 milioi eurotan aurreikusi dute eta HAPOnen aldaketa behartuko du seguruenik



Getxoko antzoki berrirako milioi bat euroko laguntza gorde du Espainiako Gobernuak aurtengo aurrekontuetan

**Getxo Antzokia** berreraikitzeko eta eraberritzeko egitasmoaren aurre-ikerketak agindu du dagoeneko Getxoko Udalak eta 30.000 euro bideratu ditu egiteko horretarako: kokapenaren krokisa egin, bete beharreko baldintzak eta beharrak zehaztu, hartutako erabakiaren justifikazio tekniko eta urbanistikoa egin... Hala, hil honetan ikerketaren emaitzak esku artean edukitzea espero du Udalak.

Eraikin berrirako aurrekontua 22 milioi euro ingurukoa izatea aurreikusi dute eta 4.000 metro koadroko azalera edukiko du: ekitaldi handientzako aretoa (800-1.000 lagun), eta neurri txikiagoko (200 lagun) erabilera anitzeko beste gune batzuk: bilerak egiteko, zenbait zine emanalditarako, formato txikiko antzezlanak eskaintzeko, Antzerki Eskolako txokoa...

Andres Isasi Musika Eskola, baina, ez dute lekutuko eraikin horretan. Edozelan ere, Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak jakinarazi legez “horrek ez du esan nahi etorkizunean Algortan Musika Eskolako ordezkaria egongo ez denik”.

Bestalde, litekeena da eraikin berrirako egitasmoak Getxoko Hiri Antolaketarako Plangintza Orokorren aldaketa behartzea. Gai-nontzean, behin betiko proiektua aurten jasotzea espero dute, horrela Udalak Espainiako Sustapen Ministerioagaz hartutako konpromisoa beteko luke. Izan ere, aurtengo aurrekontuetan Getxoko antzoki berrirako milioi bat euroko laguntza aurreikusi du Ministerioak, eta Zarrakoak ez du baztertu, “aurreantzean proiekturako dirulaguntza gehiago emango dutela”. m

## GETXOKO JAIK 2005-PHOTOALBUM IZAN DA LIBURURIK SALDUENA AZOKAN

Apirilaren 21etik 23ra Algortan egindako Liburu Azokan Getxoko jaien inguruan Mikel Martinezek egindako *Getxoko Jaiak 2005-Photoalbum* liburua izan zen salduena. 17.000 bat pertsona hurbildu ziren azokara, joan den urtean baino 2.000 gehiago. Eguraldia nahiko kaskarra izan arren, aurreikuspenak bete eta egindako salmentak ugariak izan ziren. Getxoko liburutegiaren arduradunek jakinarazi dutenez, Ramiro Pinillaren *Verdes prados, rojas colinas* eta Laura Mintegik itzulitako *Ecce Homo* izan dira salduenetarikoak.

## LUTXO EGIA IZANGO DA IRAKURZALEEN TXOKOAN

Maiatzaren 24an, Aldai Patronatoan egingo den Irakurzaileen Txokoa Lutxo Egia idazlea izango da *Ezker hanka falta zuen* bere lanaren inguruan berba egiteko. Sortzaileen eskutik literaturaz zerbitzu gehiago ikastea ahalbidetzen du hilero Algortan antolatzen den hizketaldiak. Hitzordua, beraz, arratsaldeko 8:00etan izango da, patronatoak Karitatea kalean daukan egoitzan.

## DANTZA JAIALDIA ANTOLATU DU ITXAS-ARGIA TALDEAK

San Isidroko jaien egitarauaren barruan, dantza jaialdia antolatu du Getxoko Itxas-argia taldeak. Hartara, maiatzaren 6an Txikien Jaialdia izango da eta Euskal Herriko hainbat herritik etorritako taldeek hartuko dute parte: Legazpiko Korosti, Dimako Gaztebarri, Algortako Agurra eta Itzartu... Ekitaldia 18:00etan izango da, Andra Mari kiroldegian. Maiatzaren 13an, berriz, nagusien txanda izango da, egun horretarako Itsasargiakoek Herrien Jaialdia antolatu dute-eta. Aurten, Italiako iparraldetik etorritako La Clicca taldearen ikuskizunaz gozatu ahal izango dugu.

**Taberna Berri**  
Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-  
na
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

**VIEJO**

kopak eta giro jatorra

Alangobbarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA



## Euskara kalera

Herriko saltokietan euskararen erabilera sustatzeko plangintza abiaraziko du Euskara Zerbitzuak

**Leioan** euskararen erabilera bultzatzeko ekimenarekin jarraituz Euskara Zerbitzuak egitasmo berri bat plazaratu du. Oraingo hau merkataritzara bideratuta dago. Herriko komertzio txikietan euskararen presentzia handitzea da helburu nagusia eta aurreko urteetan saltokiei begirako planen aurrerapausoa da. Izan ere, Euskara Zerbitzuko arduradun Joxe

«Saltoki txikietan euskararen presentzia handitzea da helburu nagusia»

Belmontek azaldu duenez saltzaileen ezagutzari eta euskararen erabilerari begiratu gero desoreka igar daiteke: *“Momentu honetan bizkuntzaren erabilera ezagutza mailaren azpitik dago”*. Ildo horretatik, beraz, euskara dakien jendea begira, erabilera pizteko jorratuko da plana alor ezberdinetan.

Alde batetik, kontzientzia kanpaina abiaraziko dute merkatarien eta herritarren artean. Egindako inkesten arabera jendeak positibotzat baloratzen du bezero euskaldunei euskaraz zerbitzu ematea. Joxe Belmontek berak adierazi digunez, *“merkataritari zerbitzu personalizatua ematearen onuraz, bizkuntza ere horren barne dago, ohartaraziko zaio eta bezeroak bere aldetik jakin behar du Leioan bada-goela euskaraz erosteko aukera”*.

Bestalde, saltokiei baliabideak eta zerbitzuak eskainiko zaizkie euskararen presen-



Merkataritari euskara erabiltzearen onuraz ohartarazi nahi zaio

tzia ahalbidetzeko. Esaterako, komertzio mota ezberdinetan erabiltzen diren esatera eta esamoldeen direktorioa sortuko da saltzaileen eskuratzeko. Euskara arduradunak gaineratu duenez, *“Udal Euskaltegian ikasten dagoen merkataritari taldean ere direktorio hau landuko dute”*. Berrikuntzarik nabaritu du, batik bat, haragia erostera doanak. Izan ere, harategietarako bereziki prestatutako materiala jarriko da, besteak beste, eskatu gura den behiaren zatiak euskaraz eskatzeko. Horrez

gain, aurreko urteetan bezala gura duen komertzioak eskura izango ditu itzulpen zerbitzua, euskarazko afixak, euskara ikastaroak eta aholku zerbitzua Euskara Zerbitzuaren bulegoetan. Azkenik, Merkataritza Euskalduntzeko Plan Integrala (MEPI) aplikatuko da interes berezia agertu duten hiru komertziotan. Hasierako ebaluaketa baten ondoren komertzioa erabat euskalduntzeko hartu beharreko urratsak zehaztu eta planifikatuko dira. m

## Sahararik Leioara

Elkartasun astea antolatu dute Fath elkarteak eta Gazte Bulegoak **hilaren 15etik 20ra**



laz eskualdean uda eman zuten ume saharaiak

**Ohikoa** bihurtu da uda partean gure artean ume saharaiak ikustea. Herriko familiak dira euren atea irekitzen dituztenak ume bati laguntza eskaintzeko, baita atzean dauden gurasoei, familiei, herri oso bati ere elkartasuna luzatzeko. Hain zuzen, basamortuko umei euren atea irekitako guraso talde batek sortu zuen 1998an FATH Sahararen Aldeko Taldea. Ordutik, Saharar Herriari elkartasuna adierazteko egindako lana ez da nolana hinkoa izan. Besteak beste, Saharar Herriaren egoeraren salaketa eta sensibilizazio kanpainak, janari, sendagai eta eskola materialaren bilketa eta umeen harrerak antolatu dituzte.

Oraingoan ekimen berria aurkeztu digute Gazte Bulegoarekin batera: maiatzaren

15etik 20ra bitartean basamortuko herriaren aldeko Elkartasun Astea. Herri honen errealtatea ezagutaraztea eta sensibilizaztea da helburua. Hilaren 15ean arratsaldeko 19:00etan Aterpe Gazte Bulegoan Elkartasun Astea aurkeztuko da te dastatzearren laguntzaz. Astean zehar Saharar Herria hobeto ezagutzeko Saharar Herriaren egoera islatzen duen dokumentala, Saharar gizartearen emakumearen egoera azalduko duen hizlaria eta errefuxiatu politikoei buruzko hitzaldia eta argazki zein kartel erakusketa antolatu dituzte. Asteari bukaera emateko, larunbatean, maiatzak 20, jaia egingo dute Errekalde Plazan. Haima, te dastatzea, henna eta lepoko tailerrak, dantza eta antzerkiak girotuko dute azken eguna. m

## BLUES-JAZZ ZIRKUITUA

Urtarrilean hasitako blues eta jazz musikaren emanaldien azkena maiatzaren 12an izango da. Antonio Serrano madrildarrak eta Federico Lechner argentinarrek emango diote akabuko puntua ekimen arrakastatsu honi. Antonio Serranok harmonikari soinua ateratzen eta Buenos Airesekoak pianoarekin bikote distiratsua osatzen dute. Tangoa, jazz eta new-agearen zipzintzindak nabarmenduko dira sentsazio gozoez betetako kontzertuan. Hitzordua, maiatzaren 12an Ambigu Kultur Leioan gaueko 22:00etan, sarrera 3 euro kostako da.

## LEIOA MENDI TALDEAREN EGUNA

Urtero bezala garai honetan Leioako Mendi Taldeak “Taldearen Eguna” ospatuko du. Aurten, maiatzaren 14an, Nabarniz herrian egingo dute bazkaria. Lehiaketa ezberdinetako sariak ere banatuko dituzte bertan. Mendi talde bati dagokion legez, mendia izango da protagonista goiz partean. Ibilalditxo egingo dute inguruan dagoen Illuntzar (727 m) tontorrera. Izena emateko eta informazio gehiago eskuratzeko astelehen eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara 689 721 917 telefonoan edo Sakoneta Kirolegian bertan.

## MARGOLARI GAZTEEN IX. SARIA

Maiatzaren 14an, igandea, egingo da Margolari Gazteen Sariaren bederatzigarren edizioa. Egun horretan parte hartzaileek (16 eta 35 urte bitartean) goizeko 8etan Aterpe Gazte Bulegoan aurkeztu beharko dute ohialei zigilua ipintzeko. Momentu horretatik aurrera irudimena, sormena eta askatasuna. Izan ere, teknikak eta estiloak libreak dira eta herriko edozein toki aukera dezakete “Leioa eta bere ingurunea” irudikatzen. Arratsaldeko zazpitan txapeldunen izenak plazaratuko dituzte Gazte Bulegoan bertan. Informazio gehiago 94 607 25 72 telefonoan.

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

ERROTULOAK

BEST

ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK  
egiten ditugu

e-mail: [hurstab@euskalnet.net](mailto:hurstab@euskalnet.net)

Iparagirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA



# Kanpomartxo 2006

Apirilaren 9an **erromeria** egin zuten Goierri auzoan

Eguraldiak larregi lagundu ez bazuen ere, jende ugari bildu zen Goierriko San Kristobal basilizaren inguruan, urtero legez, Kanpomartxo jaia ospatzeko asmoz. Saltsa on bat antolatzeko gai guztiak prest izan zituen Berbots Erandion Euskaraz Taldeak: Kepa Arrizabalaga eta Roberto Etxebarria trikitilariak; Patxi, Bat, Bi eta Hiru musika taldea; txalapartariak; Erandioko dantzariak; txosnak eta umeentzako jolasak; herri bazkaria; abesbatza... Egun osoan zehar ekitaldiez gozatzeko aukera eduki zuten bertan bildutako familiek, koadrilek eta belaunaldi desberdinek.



## Felipe Manterola

Nekazal giroko euskal gizartea **argazkitan** ikusteko aukera paregabea, Josu Murueta Kultur Etxean



XX. mendearen hasierako irudiak jaso zituen Manterolak

**Maiatzaren** 15etik 26ra arte, Felipe Manterola argazkilari bizkaitarrak egindako lanaren inguruko erakusketa izango dugu ikusgai Kultur Etxean. *Felipe Manterola. Nekazal gizarteko argazkilaria* izenburua daroan proiektua Josu Bilbao Fullaondok egindako ikerketaren emaitza ikusgarria da eta argazkilariak 1904 eta 1936 urteen atean egindako mila argazki baino gehiago hartu ditu oinarritzat.

Erakusketa zortzi zatitan antolatuta dago, gaien arabera: *baserriaren aurrean, ortuko lanak, erlijiosoak eta prozesioak, erretratuak, umeak, olgeta, bidean eta alderdi sortzaileak*. Horrez gain, Alemanian, Frantzian eta Bilbon argitaratutako hainbat postal zein

erabilitako lanabesak erakutsiko dituzte.

Manterola 1885ean jaio zen Zeanurin eta bertan bizi izan zen 1977an hil zen arte. Eskola utzi eta bere gurasoek zeukaten dendan lanean hasi zen aita hil zitzaionean. Beranduago autobus gidari bezala jardun zuen eta 1904an Manuel Arriolak argazkilaritzan murgildu zuen. Afizioa ogibide bilakatu eta tailerra etxeko kamaran jarri zuen. Halaber, hainbat kolaborazio egin zituen zenbait aldizkaritan.

Burututako lanak berebiziko ikusmina piztu zuen hainbat jakitunengan: Aranzadi, Barandiaran... Alabaina, Gerra Zibila hasterrakoan argazkiak egiteari utzi behar izan zion, espetxean egoteaz gain, erretratuak ateratzeko materiala urria zelako. m

### FAMILIENTZAKO JOLAS ETA SOLAS LEHIAKETA AURKEZTU DUTE

Erandioko familia euskaldunetan euskara sustatzeko, Munduko Jolasak izenburupean, Jolas eta Solas lehiaketaren edizio berria aurkeztu du Euskara Zerbitzuak. Euskaraz egingo diren ekintzetan senideek elkarrekin parte hartzea da ekimenaren asmo nagusia. Hartara, familiek baldintza batzuk bete beharko dituzte parte hartu ahal izateko; besteak beste, familiako kideek euskaldunak izan beharko dute eta talde bakoitzaren kopurua gutxienez pertsona bikoia izango da eta gehienez laukoa. Irabazleek asteburu bateko egonaldia izango dute landetxe batean edo, aukeran, playstationerako sei joko. Gainerakoei bazkari batera gonbidatuko zaie. Informazio gehiago: 944 890 128.

### IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ORDAINTZEKO EPEA IREKITA

Erandioko alkateak jakinarazi duenez, apirilaren 1etik maiatzaren 31 arte izango dute udalerriko bizilagunek trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko. Oraingoan, 2005eko erreziboak kobratuko dituzte eta BBK-ko zein Euskadiko Kutxako bulegoetan ordaindu ahal izango dira. Ordaintzeko banketxe bidez helbideratzea gomendatzen du Udalak. Informazio gehiago: 944 890 180.

### GUATEMALAREN ALDEKO JAI AOSPATUKO DUTE ERANDIO GOIKOAN

"Guatemala aldeko haurrak" lelopean, herrialde horren aldeko jaia antolatu du Erandioko Gurari Aisialdi Elkarteak maiatzaren 13rako Erandio Goikoan. Herriarrek euren elkartasuna Guatemalari helaraztea gura du eta, horretarako, egitarau zabala prestatu du: kalejira, txistulariak, haurrentzako jolasak, herri bazkaria, karaokea, azoka txikia eskoletan, dantzaldia, etab.

# ARLAN



Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)  
Tel.: 94 471 12 44 / [www.arlan-ser.com](http://www.arlan-ser.com) / [arlan@arlan.biz](mailto:arlan@arlan.biz)





## EUSKARAZ OLGETAN EKIMENAREN MAIATZEKO EKINTZAK

Uribe Kostako Mankomunitateak antolatzen duen Euskaraz Olgetan ekimena barikuetan izango da Sopelan. Hilaren 12an komiki mundua eta lantegiak egingo dira; hurrengo barikuan birziklapenagaz lotutako lantegiak eskainiko dituzte eta maiatzaren 26an sukaldaritza ingurukoak. Ekintzok Larrabasterrako Urgitxieta plazan lekutuko dira 18:00-20:00 orduetartean.

## UDALEKU IREKIETAN PARTE HARTZEKO EPEA ZABALIK DAGO

Sopelako Udalaren ekimenez egiten diren Udaleku Irekietan izena emateko epea maiatzaren 19ra arte dago zabalik, eta eskaera Hall Kulturalean egin daiteke (18:00-21:00). 4 eta 12 urte bitarteko umeei begira antolatzen dituzten udalekuok hamabostaldi bakoitzeko 80 euroko prezioa daukate. Sopelan errolatutako haurrek bakarrik parte har dezakete eta hamabostaldiak modu honetara banatuko dira: lehenengoa uztailak 3-14, bigarrena uztailak 17-28, hirugarrena abuztuak 1-11 eta azkenengoa abuztuak 16-25.

Informazio gehiago: 94 406 55 19

## ERRUSIAKO KULTURA ETA MARGOGINTZAREN GAINEKO HITZALDIA

Herriko Zirri Marra Margo elkarteak hitzaldi interesgarria eskainiko du hilaren 9an. Arratsaldeko 6:30etik aurrera udaletxeko beheko solairuan dagoen Hall Kulturalean Errusiako kultura eta margogintza izango dute berberak. Bilboko Guggenheim museoa orain dela gutxi paratu duten erakusketa hobeto ulertzeko baliagarriak izan litezke Zirri Marrakoek emango dituzten azalpenak. Eta zergatik ez horrela "titaniozko ontzira" goazen hurrengoan agian begirada eta ezagutza berri bategaz ikusiko ditugu artelan horiek.

## Urazpiko igeriketa berberak emanaldiak Hall Kulturalean



Argazki eta bideo emanaldiak egongo dira

**Sopelako** Udalak Urazpiko Igeriketa Astea antolatuko du Itxas-Dive urpeko igeriketa elkartearen eta Urazpiko Jardueren Bizkaiko Federazioaren laguntzaz. Emanaldiak hilaren 15, 16 eta 18an egingo dituzte udaletxeko Hall Kulturalean (19:30).

Lehenengo egunean (hilak 15) urazpiko igeriketaren aurkezpena egingo dute, horretan ibiltzeko beharrezkoak diren baldintza eta beharrak azalduko dituzte eta inguruan non egin daitekeen ere adieraziko dute. Horren ostean, argazki erakustaldia prestatu dute eta Kantauri, Mediterraneo zein Atlantikoan egindako urperaldien

irudiak ikusteko aukera egongo da.

Bigarren jardunaldian (hilak 16) mundu osoko itsasoetan egindako urperaketen bideo-emanaldia eskainiko dute eta urperkariaren azalpenek osatuko dute ekitaldia. Tahiti, Sudan, Cozumel, Guadalupe Irlan (Kalifornia) marrazo zuri handiaren irudiak... egongo dira ikusgai, besteak beste.

Azken topaketan (hilak 18) Maurizio uharteetako argazki emanaldia antolatu dute eta Itsaso Gorrian (Egipto) hondoratutako itsasontzien erretratuak ere erakutsiko dituzte. Ondoren, ekitaldian parte hartzen dutenen eta antolatzaileen artean solasaldia egiteko parada ere egongo da. m

## Gazteentzako eskaintza

Maiatzaren 12an ipiniko dute berriro martxan Sopelako **Gauak ekimena**



Hainbat jardura antolatu dituzte, berbarako, rasta lantegia

**Hirugarren** urtez jarraian, berriro ere Sopelanako Gauak ekimena ipiniko du abian Udalak. Maiatzean eta ekainean zehar zenbait ekitaldi prestatuko dituzte 14 urtetik gorako gazteentzat. Aipatutako hileetako bariku guztietan jarduerak eskaintzea da asmoa, baina kultur ardurdunek azaldu legez hori oraindik ez dago guztiz hitzartuta. Ordutegia, bai, adostu egin dute, iluntzeko 9:30etik aurrera ipini dute hitzordua.

Hilaren 12a izango da aurtengo Sopelanako Gauak ekimeneko lehenengo zita. Ordurako, besteak beste, jardura hauek iragarri dituzte: henna, rasta, ispilu margoituak eta lepokoak egiteko lantegiak, horrez gainera, skate pista eta ikasta-

roa eta DJak ere egongo dira. Lehen ekitaldi hau Iturrieta plazan antolatu dute, baina horrek ez du esan gura gainontze-koak edo hurrengoak leku berean gauzatu direnik, berbarako, aurreko ikasturtean egin legez igerilekuetan egiteko aukera aztertzen dabilta.

Ekitaldiotan parte hartzeko txartel berezi bat eskuratu beharko dute gazteek, Hall Kulturalean eskuragarri dagoena. Eta esan barik doa Sopelanako Gauak programaren barruan antolatzen diren ekimenak musu-truk edo debalde direla.

Bestalde, uztaillean eta abuztuan, oporraldia dela eta, ez dute ekintzarik prestatuko. Halaber, ekimenak iraila edota urriaren jarraipena izango du ziurrenik. m

## ANGULEROEN BAIMENAK JASOTZEKO EPEA ZABALIK

Butroeko anguleroen elkarteak txitxardinak arrantzatze baimenak jasotzeko epea zabaldu du dagoeneko. Maiatzaren 15era arte jaso ahal izango dituzte arrantzaleek baimenok eta horretarako Bilbotik Mungiarainoko eremuan hainbat leku aukeratu dituzte. Osterantzean, Butroeko anguleroen elkarteak Sopelan dauka egoitza eta gura duenak bertatik igarotzea besterik ez du egin beharko. Dena dela, baimenaren gainera edo gaiaren inguruko bestelako informaziorik jaso nahi dutenek ondorengo bi telefono zenbakietako batera dei dezakete: 606 042 544 edo 645 713 426

## DIDAK HAMILTON IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
    - Maila guztiak
  - Ingelesa 3 urtetik aurrera
    - Talde txikiak
  - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
didakhilton@euskalnet.net

## ALERGIA

Cristian Amezaga Asensio  
Sendagilea - Alergologoa

### RINITIS ASMA URTIKARIA

Poliklinika Euskal Herria  
Euskal Herria Kalea, 22  
48991 Algorta-Getxo  
Telef: 94 491 34 62  
I.M.Q.

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

**LAIKAK Taberna**

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94.6760328



### HAUR LIBURUTEGIA IPINI DUTE BERANGOETAKO KULTUR ETXEAN

Umeen artean irakurzaletasuna bultzatu gura du Berangoetako kultur etxeak eta, horretarako, Haur Liburutegia sortu berri du. Bertan begirale berezi bat egongo da eta, haurrak zaintzeaz gain, irakurtzen hasiko direnak aholkatuko ditu. Alabaina, sendien laguntza nahitaezkoa dela azpimarratzen dute kultur etxeko arduradunek, haurrek liburuak hurbil izateaz gain, ingurukoak irakurtzen ikusi behar dituztelako. Gainera, umeak liburuak aukeratzen laguntzea oso garrantzitsua dela nabarmentzen dute eta, liburutegia erakargari bihurtu dadin, familiako norbaitegaz joatea gomendatzen dute. Zerbitzu hau apirilaren 18an hasi zen eta ekainaren 30era arte egongo da indarrean, asteleheneetik barikura, 18:00etatik 20:00etara (baliteke irailean berriro martxan jartzea).

### TXANGOIA ANTOLATU DUTE KUTXAESPAZIORA

Donostiako Kutxaespaziora eta Igeldora txangoia antolatu du Kultur Etxeak maiatzaren 27rako. Familientzako irteera izango da eta Zientziaren Museoa, planetariuma zein Igeldo mendia bisitatuko dute. Horrez gain, tailer bereziak landuko dituzte nagusiek eta umeek. Irteera goizeko 9:00etan izango da Kultur Etxetik eta itzulera, berriz, 21:00etan.

### UDALEKUETAN BAZTANERA

Udako akanpalekuetarako izena emateko epea zabaldu du Berango Udalak (maiatzaren 19ra arte). Aurten, Baztan haranean dagoen Bertizeko aterpetxean izango dira udalekuak eta 1990 eta 1994 urteen bitartean jaiotako gaztetxoek hartu ahal izango dute parte. Prezioa 100 eurokoa da, 90 eurokoa Gaxt Klubeko kidea izanez gero. Behin izena emateko epea agortuta, eskaintzen den plaza kopurua gazteen artean zozketatuko da.

## Kultura Jardunaldiak badatoz

Ekitaldiak gogotik maiatzean eta ekainean



Mikel Urdangarinen kontzertua hilaren 20an

**Lorailak** ureztatuko du Berango kultur jarduera eta bagilak emango dio berotasuna. VIII. Kultura Jardunaldiek, kultur etxeak eta herriko elkarteek eta taldeek prestatuta, kirol eta kultur ekimenez beteko dituzte hurrengo bi hilak.

Galapan emango diote hasiera Jardunaldiei hilaren 6an, herri krosa (Eskolatik, 10:30) eta txirridulari martxa (Elexalde, 12:00) antolatu dituzte-eta. Hilaren 8tik 13ra Ehiza elkartearen erakusketa paratuko dute Berangoeta kultur etxean. Maiatzaren 13an, Otxandategi dantza taldeak emanaldia egingo du (Eskola, 18:00) eta hurrengo egunerako eskolarteko txirridulari lasterketa iragarri dute (Moreaga parketik, 10:30). Umeek hartuko dute lekukoa maiatza-

ren 19an Betizu taldearen jaiagaz gozatzeko (Eskola, 19:00). Futbito txapelketak jokatuko dira hurrengo egunean (Moreaga parkea, 10:30) eta arratsalde-gau partean musika izango da ikusmira: abesbatzen emanaldiagaz (Eliza, 20:00) eta Mikel Urdangarinen kontzertuagaz (Eskola, 22:00). Hilaren 21ean egun osoan zehar haur parkea ipiniko dute Eskolan (11:00-14:00 eta 17:00-19:00), lantegi kimikoak eskainiko dituzte (17:00-19:00) eta iluntzean nagusiek Los Cinco Bilbainos taldearen erritmora dantzatzeko eta abesteko aukera edukiko dute. Eskolaz kanpoko jardueren zein fosilen eta mineralen erakusketa egongo da ikusgai hilaren 22tik 27ra (Berangoeta kultur etxea). Balletaren gaineko bideo emanaldia hilaren 23an egingo dute (18:00) eta urpeko arrantzari buruzkoa hilaren 27an (17:00), bata zein bestea kultur etxean. Pilota partidak ikusi gura dituenak hilaren 24an joan beharko du frontoira (19:00). Eskolaz kanpoko jardueren emanaldia hilaren 26rako prestatu dute (Eskola, 16:30) eta maiatzeko azken txanpa As-te Berdeak beteko du . m

### Ekitaldi batzuk

- Txirridulari martxa, hilak 6, 12:00.
- Otxandategiaren dantza erakustaldia, hilak 13, 18:00.
- Betizu jaia, hilak 19, 19:00.
- Abesbatzen kontzertua, hilak 20, 20:00.
- Los cinco Bilbainos, hilak 21, 18:00.
- Ballet bideo emanaldiak, hilak 23, 20:00.
- Ekaineko jarduerak, hurrengo UKetan.

Igor Manzanet > denda zabaldu berri du  
 “Adituen ikerketen arabera, alkohola kalamua baino askoz ere kaltegarriagoa da”



Arropa eta kosmetikoak izango dira, besteak beste, salduko dituzten produktuak

**Igor Manzanetek** eta Maider Bilbaok Organika growshopa inauguratu berri dute Gorlizko Areatza kalean. Egun, mota horretako 30 bat denda daude Euskal Herrian. “Zergatik growshopa? Mundu horretako jende ugari ezagutzen dugu eta denda asko muntatzen lagundu dut. Gainera, urte asko deraoat periatara joaten”, azaldu du Igorrek. Esperientzia berri batean murgiltzeaz gain, kalamuaren kontsumoa normalizatzekeo beste urrats bat izan daitekeela uste du.

Baina zer da zehazki growshop bat? “Hitzak argi uzten duela uste dut, landareak hazteko beharrezkoak diren lanabesak erosteko denda da: lorontziak, argiztapena, ongarriak... Halere, argi utzi gura dut ez ditugula haziak salduko, onangoz hori legez-kontrakoa da-eta”.

Horrez gain, hainbat produktu salduko dituzte kalamuagaz egindakoak: oparitzeko artikulua, kosmetikoak, marka ezberdinetako arropa... “Guk parafernalia deitzen duguna. Dendan salduko ditugun produktu

guztiak legezkoak dira eta hemengo enpresakaz egingo dugu behar”, nabarmendu du.

Hartara, kalamuaren kontsumoak legezkoa izan beharko lukeela uste du Igorrek eta gobernuen jarrera deitoratzen du. “Gobernuak kontsumoa normalduko zuela agindu zuen, baina orain hori kontrolatzeko legea aurrera atera gura du”, salatu du eta alkohola droga kaltegarriagoa dela azpimarratu. “Oraindik ez dut kalamuaren kontsu-

### «Suitzan etxeak eraikitzen dituzte kalamuz egindako adreiluak»

mitzailentzat zentro berezirik ikusi eta alkoholarekiko menpekotasunari aurre egiteko tokiak daude ia herri guztietan”.

Droga izateaz gain, landareak bestelako erabilerak dituela azaldu du Igorrek: “Suitzan, adibidez, etxeak egiten dituzte; izan ere, iraukorrak eta arinagoak dira kalamuz egindako adreiluak. Gainera, intsektuak uxatzeaz gain, inifugoagoak dira” . m



## TXIBERRI edantokia

frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
 T: 94 676 07 15



Teléfono: 946 761 128

## Ajuria taberna

Andrés Cortina 2  
 ALGORTA



BASALBO BASERRIA

## JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
 48993 ANDRA MARI - GETXO


basalbobaserria@yahoo.com

## cianoplan Reprografía

global printers

Villa de Pientzia 6. zbk  
 Antigua Golf - Getxo  
 Tlf. 944 649 087  
 944 648 691  
 http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak
- Kartelak kolorez eta z/b
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua
- Fotokopiak kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- enmarkaketak





## ARTISAUTZA ETA BASERRITAR AZOKA HILAREN 13AN ARMINTZAN

Lemoizko VII. Artisautza eta Elikadura azoka hilaren bigarren zapatuan egingo da Armintzan 11:00etatik 15:00etara. Azokako ohiko produktuen salerosketaz gainera, umeentzako lantegiak, burduntzian erretako txahal okelaren dastaketa eta pala partidak (frontoian) prestatu dituzte, eta trikitiaren doinuek alaituko dituzte Lemoizko inguruak goiz osoan zehar.

## BOB? NOR DA BOB? ANTZERKI LANA ESKAINIKO DUTE URDULIZEN

Kultur Etxeak antolatuta maiatzaren 15ean *Bob? Nor da Bob?* antzezlan ikusteko aukera egongo da Urdulizen. Umeei zuzendutako antzerki lana gozatu gura duenak arratsaldeko 7:00etan dauka hitzordua Kultur Etxean.

## ABESBATZEN UDABERRIKO KONTZERTUA MAIATZAREN 20AN EGINGO DUTE BARRIKAN

Barrikako kultur etxetik jakinarazi dutenez, Abesbatzen Udaberriko kontzertua hilaren 20rako, zapata, prestatu dute. Ohi legez, emanaldia Elizan izango da 20:30etik aurrera.

## GORLIZ ETA PLENTZIA

### Euskal Jaia egingo dute hilaren 19an



Haurrei begira makina bat ekitaldi antolatu dira

**Hilaren** azken aurreko barikuan ospatuko dute Plentzian eta Gorliz Euskal Jaia.

Gorlizko ekitaldiak goizez bakarrik izango dira eta haurrei begira hainbat jarduera prestatu dituzte. Udaletxeko plazan batuko dira 10:30ean eta ostean ibilalditxo bat egingo dute: Ixasbide kalea, Andra Mari kalea, Krutzeta eta atzera ere Ixasbidera. Ondoren lantegiak eta jolasak antolatu dituzte eta frontoian bazkaldu ostean Xilipurdi pailazoan *Gaur Jai* ikuskizunagaz gozamen hartuko dute Udaletxe plazan (14:00).

Bestalde, Plentzian goiz osoan zehar gazte-  
ei zuzendutako musika kontzertuak, antzerkia, eta txiste eta irrinti txapelketak antolatuko dituzte. Ekitaldi horiek guztiak Institutuan egingo dira. Arratsaldeko ekintzak Plentziako Astillero plazan egingo dituzte eta helduentzako izango direla azaldu dute antolatzaileek. Herri Kirolen erakustaldia (andrazkoak) 19:00etan izango da eta trikitiari eta bertolarien emanaldia zein erromeria 20:00etatik aurrera. Ordu horretan ere zabalduko dituzte atak Sagardotegiak. m

# Mai. 6 - 21

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### GETXO

► **Kultur Etxeko tailerretan egindako lanak.** Algortako erakustaretoan. Maiatzaren 8tik 12ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.  
► **Larru artistikoak.** Julia L. Muriel. Erromoko erakustaretoan. Maiatzaren 16tik 27ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:00.

### PLENTZIA

► **Itsasontzien historia.** Udal museoa. Maiatzaren 1etik 30era arte.

## ZINEMA

### GETXO

► **Mozart txakurra.** Umeentzako zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Maiatzak 7, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.  
► **Todo o nada.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Maiatzak 10, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.  
► **La pesadilla de Darwin.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Maiatzak 12, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.  
► **Bambi 2.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Maiatzak 14, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.  
► **Iluminados por el fuego.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Maiatzak 17, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.  
► **Tormenta de verano.** Cinema Paradiso. Azpitiuludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Maiatzak 19, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.  
► **Las fieras fútbol club.** Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Maiatzak 21, domeka. 12:00, 17:00



► Enbata konpartsa

### Gazte Eguna antolatu dute Erromon

Gazte Eguna '06 antolatu dute Erromoko Enbata konpartsak maiatzaren 13rako. Aurretan deialdi zabala egin dute konpartsaok eta, euren esanetan, kalean elkartzea, ligatzea, ikastea, harreman berriak egitea eta ondo pasatzea da asmoa. Horretarako, hainbat ekitaldi antolatu dituzte: goizean, futbito txapelketa eskoletan eta umeentzako jolasak, dantzak, azoka, musika, etab. Ibaiondo kalean. Eguerdirako herri bazkaria antolatu dute eta, jakinarazi dutenez, txartelak egunean bertan erosteko aukera dago. Arratsaldean, berriz, ginkana erraldoia egingo dute. Eguna kontzertuakaz amaituko dute eta han egongo dira, besteak beste, Izenik ez, Narkolepsia eta Ene Bada taldeak.

• Non: Erromo • Noiz: maiatzak 29 • Ordua: 9:30

eta 19:00.  
**BERANGO**

► **La madre del novio.** Gaztelekua. Maiatzak 21, domeka. 16:00.

### LEIOA

► **El castillo ambulante.** Kultur Leioa. Maiatzak 7, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.  
► **Crueldad intolerable.** Auditorium. Maiatzak 9, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.  
► **Iratxoeren erregea.** Kultur Leioa. Maiatzak 14, domeka.

12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.  
► **Lady killers.** Auditorium. Maiatzak 16, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

## ANTZERKIA

### GETXO

► **Hijos de mamá.** Enrique San Francisco eta Jorge Sanz. Getxo Antzokia. Maiatzak 13, zapata. 20:00. Sarrera: 12/15 euro.  
► **Eugenia ardiaren bidaia.**

Agere teatroa. Umeentzako antzerkia. Getxo Antzokia. Maiatzak 20, zapata. 12:30 (gaztelaniaz) eta 18:00 (euskaraz).

### LEIOA

► **La señorita Julia.** Kultur Leioako Auditoriuma. Maiatzak 19, barikua. 20:30. Sarrera: 12 euro.  
► **Alonso Quijano El Bueno.** Umeentzako dantza. Kultur Leioako Auditoriuma. Maiatzak 21, domeka. 12:00.

### URDULIZ

► **Bob? Nor da Bob?** Urdulizko Kultur Etxea. Maiatzak 15, astelehena. 19:00.

## BESTEAK

### GETXO

► **Kontularien Kluba.** Nagusientzako ipuin-kontalaria. Algortako kultur etxea. Maiatzak 12, barikua. 19:00.  
► **Getxoarte 2006.** Areetako Geltokia plaza. Maiatzaren 19tik 21era arte. 11:00-14:00 eta 17:00-21:30. Sarrera: 2 euro.

### LEIOA

► **Margolari Gazteen IX. Saria.** 16 eta 35 urte bitarteko pertsonak hartu ahal izango dute parte. Maiatzak 14. 8:00-15:00.  
► **Leioatik Sahara, Saharatik Leioara.** Jardunaldiak. Maiatzaren 15etik 21era arte.

### BERANGO

► **Mikel Urdangarinen kontzertua.** DANA diskoaren aurkezpena. Santo Domingo Eskolako karpia. Maiatzak 20, zapata. 22:00.  
► **Makilaje tailerra.** Berangoetako kultur etxea. Maiatzak 23, martitzena. 18:30tik 20:30ra. Maiatzaren 19ra arte dauka izena eman gura duen orok.  
**SOPELA**  
► **VI. Artisautza Azoka** Larrabasterrako Urgitxieta plaza. Maiatzak 6, zapata. 11:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara.


# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO  
INGENIARITZA  
INSTALAZIOA  
MANTENIMENDUA  
Otxandategi tar Simon 114  
48640 Berango, Bizkaia  
Tel. 94 668 15 51  
Faxa. 94 66829 92  
e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA





# Lehengo San Isidro jaiak

San Isidro baserritarren santua da eta horregatik ez da arraroa Getxon aspalditik jai eguna izatea maiatzaren 15a. Izan ere, Getxoko Andra Mari auzoa herriko auzo nekazaria izan da oraintsu arte, gaur egun ematen ez duen arren. Horrela, jai egun hau gainean daukagun honetan aspaldiko sanisidroetako giro jasotzen duten irudi hauekin egin dugu topo. Argazkiak 1961 eta 1963 urtekoak dira eta horietan ganadu azoka eta idi probak ikus ditzakezue, jaietako ekitaldirik garrantzitsuenak izaten zirenak.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**







## Gargantua Plentzian

XIX. mendearen akabuan Plentziako Madalena jaietan ateratako argazkia duzue albokoa. Antzina herriko jaiak otsailean, Kandelariatan, ospatzen zirela jakin dugu baina eguraldia txarra zela-eta irailera aldatu zituzten jaiak. Arreta ipiniz gero jende dotorea igarriko duzue argazkian, kapeladun jauntxoak, guardasola darabilten andereñoak... Izan ere, Plentzia hiribildua da aspalditik. Bestetik, hortxe ageri da gargantua elizako plazan. Gargantua pertsonaiak Rabelais idazlearen *Gargantua et Pantagruel* liburuan du jatorria. Gargantua ona, baketsua eta oso jatuna ei zen. Pertsonaia hau Bilbon 1854. urtean agertu zen lehenengoz. Ordurik hona Bilbo hiriaren ezaugarritzat hartu izan da eta beti agertzen da Bilboko jaietan. Harrezkero herririk herri ibili da Bizkaian zehar.



[berbetan]

1934an jaio zen Elgoibarren, eta inkesta baten arabera bera da, Bernardo Atxagagaz batera, euskal idazlerik irakurriena. Idatzi, behintzat, asko idatzi du: saiakera, nobela eta beste kontuan izanda, 33 liburu, ia denak euskaraz. *“Erdaraz bakarra: doktorego-tesia, irakasleak ez zekielako besterik”*. Gizon honen curriculum akademikoa izugarri gizenduz joan da hemeretzi urtegar jesuitenera joan zenetik, eta ez gara hemen horren barri zehatza emoten hasiko. Zeozer aipatuko dugu hala ere: 40 urte inguru dira Euskal Herri osoko hainbat baserritan ibiltzen dela, bertakoen euskera jasotzen, ea holan, euskararen kalitatearenganako hain kezka handia dagoen honetan, gure hizkuntzaren ajeentzako sendagairik topatzen duen. Bestalde, aitzindaria ere bada Garate. Maiatzaren 2an, hain zuzen, omenaldia egin zioten, berak abiatu zituelako, orain 30 urte, Euskal Filologia ikasketak Deustuko Unibertsitatean. Aitzakia horregaz joan gara berarengana. Elkarrizketa, argi dezagun, omenaldia egin baino lehenagokoa da, zuok geroago jaso arren.

# Gotzon Garate

## Euskara bihotzean

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Elkarrizketa hasi aurretik esan didazunez, hemeretzi urtera arte Elgoibarko euskara baino ez zenuen egiten.

—Bai, eta pentsa: bost kilometro dira Eibarretik Elgoibarrera, eta alde ikaragarria dago. Guk “eman nion” esaten dugu, eta Eibarren bizkaieraz: “emon neutson”.

—Zuena ez da esaten den bezain bizkaiera orduan...

—Ez. Hizkuntzalariek esaten dute Elgoibarren hasten dela Gipuzkoako euskara.

—Hemetretzi urtera arte Elgoibarko euskara baino ez, eta gero? Zuk hemeretzi urte zenezukanean, batua ere ez zegoen eta...

—Adin horrekin jesuita sartu nintzen eta sei urte eman nituen Loiolan. Orduan hasi nintzen beste euskara bat ikasten, Goierrikoa-edo, “egiten det” eta abar, ze Elgoibarren oraindik “egiten dot” esaten da. Eta garai hartan azpeitiarrek guri barre egiten ziguten. Euskara traketsago egingo

bagenu bezala. Eta gero nik zeozer ikasi dut eta artikulu bat eginda daukat...

—“Bizkaiera eta gipuzkera”?

—Hori da! Eta esaten dut euskara guztiak onak direla, eta egia da bizkaieraz beharbada lexikoan erdal hitz gehiago sartzen dutela baina hala eta guzti ere Bizkaian ez da sekula esaten “hori posible da”, inoiz ere ez, “egin leikeena”, edo

soek, baina ez nuen euskal kontzientziarik; euskaltzalea da euskara jakiteaz gainera maite duena, baina nik hori ez nuen. Hamabi urterekin Elgoibarren ez zegoen inongo ikastetxerik, bakarrik eskola nazionala, 1946an...

—Frankismo ilunenean...  
—Erabat. Eta ni garai hartan Durangora joan nintzen ikastera. Han bi lagun izan

nituen, oso jatorrak, azpeitiarrak, eta haiek, nire aldean, askoz kontzientzia handiago zeukaten; independentzia, euskara eta abar... Eta haiekin egin nintzen ni euskaltzale eta abertzale.

—Euskararen inguruan lan handia egingakoa zara, corpusaren inguruan batez ere. Hala ere, susmoa daukat corpusak eta estatusak oso lotura estua daukatela.

### “Hamabi urterekin egin nintzen euskaltzale eta abertzale”

“izan leikeena”, edo... Eta Gipuzkoan “posible da”. Horrelako adibide asko dago. Horregatik esan nahi dut... Horrek kalte egin dio bizkaierari, batzuk lotsau egiten zirelako.

—Euskaltzale amorratua zara. Nondik datorkizu hori?

—Hamabi urte bete arte euskaraz egiten genuen etxean, erdaraz ia ez zekiten gura-

soek, baina ez nuen euskal kontzientziarik; euskaltzalea da euskara jakiteaz gainera maite duena, baina nik hori ez nuen. Hamabi urterekin Elgoibarren ez zegoen inongo ikastetxerik, bakarrik eskola nazionala, 1946an...

—Frankismo ilunenean...


—Erabat. Eta ni garai hartan Durangora joan nintzen ikastera. Han bi lagun izan

nituen, oso jatorrak, azpeitiarrak, eta haiek, nire aldean, askoz kontzientzia handiago zeukaten; independentzia, euskara eta abar... Eta haiekin egin nintzen ni euskaltzale eta abertzale.

—Euskararen inguruan lan handia egingakoa zara, corpusaren inguruan batez ere. Hala ere, susmoa daukat corpusak eta estatusak oso lotura estua daukatela.

nituen, oso jatorrak, azpeitiarrak, eta haiek, nire aldean, askoz kontzientzia handiago zeukaten; independentzia, euskara eta abar... Eta haiekin egin nintzen ni euskaltzale eta abertzale.

—Euskararen inguruan lan handia egingakoa zara, corpusaren inguruan batez ere. Hala ere, susmoa daukat corpusak eta estatusak oso lotura estua daukatela.





Orain denon ahotan dabilta euskaraz berba egitean egiten diren akatsak, baina horrek badauka zerikusia euskararen egoeragaz, ezta?

—Dударik gabe. Diglosia gorrian bizi gara. Beste hizkuntza indartsu baten ondoan bizi gara, 400 milioi dira espainolez hitz egiten dutenak, eta dudarik gabe gauza asko sartzen zaizkigu hizkuntzan. Gure ume denboran, esaterako, sekula inork ez zuen esaten “es que” hori, konturatu zara? Baserriko umeak ikastolara joaten dira, eta han, entzunaren entzunez, beraiek ere ikasten dute. Beti gertatu ohi da hori, diglosia dagoenean.

—Interneten artikulua asko topa daiteke gaur egun -zeuk idatzitakoak ere bai-, erdararen eraginez euskaraz egiten ditugun hutsen gainean. Erdara ei daukagu burmuinean sartuta, eta ondo sartuta gainera, Hegoaldean gehiago Iparraldean baino, antza denez...

—Bai. Haiek hobeto eutsi diote lehengorari, betidanik. Hemen, garai batean -La-uaxetaren denboran esate baterako-, garbizalekeriara jotzeko joera izan genuen. “Eliza” esan beharrean, “txadona”; “bakea” esan beharrean, “gentza”... Beti esaten dut txarrak direla bai garbizalekeria, bai mordoilokeria, baina txarrago garbizalekeria. Badira testu batzuk, garbizalekeriaren garbizalekeriaz, ulertu ezin direnak. Eta hizkuntzak ulertzeko dira. Erdararen menpeko euskara behintzat ulertu egiten da, erdaraz jakinez gero.

—Hala ere, euskarazko akatsei egiten zaizkien kritikak, sarritan, oso hitz konkretu batzuri dagozkie, xehetasun handiko kritikak dira. Giro akademikoetan ez dabilenak nekez zuzenduko ditu akatsok. Hainbeste eskatu behar zaie hiztun arruntei?

—Uste dut baietz. Dena dela, horrek ez die azken batean kalte handirik egiten. Eta edozein kasutan, hutsak ez dira arazorik handiena. Nik beti esaten dut euskaraz egiteko eta idazteko hiru gauza behar direla: hutsik ez egitea, hizkuntza ulertterraza

izatea –horregatik ez zait garbizalekeria gustatzen– eta aberatsa izatea. Hiru horiek. Eta esango nuke azken biak inportanteagoak direla. Arana Martija euskaltzainak esaten zuen berak, Argian eta hola, artikulua batzuk ulertzeko bi bider irakurri behar zituela, eta nik hirutan ere bai batzuetan. Zuk entzun iezaiezu baseritarrei: oso esaldi laburrak egiten dituzte, eta euskara aberatsa erabiltzen dute, jakina. Betidanik daukate euskarazko tradizioa,

### “Euskaldun askoren euskara oso pobrea da, oso murrizta”

eta ez dute puskatu hori. Ingurumena euskalduna daukate, eta goizetik, eguzkiz eguzki, euskaraz egiten dute, orduan euskara aberatsa daukate. Orain baserrietan astorik ez dago, baina nik liburu batean 120 atsotitz daukat bilduta astoari buruz, Euskal Herri osoan, hasi Zeanuritik eta Larrañeraino. Eta nire ustez, gure egunetan, euskaraz gaizki egitea baino, problema gogorragoa da aberastasun falta. Euskaldun askok ez dute beharbada hain gaizki egiten euskaraz, baina haien hizkuntza oso pobrea da, oso murrizta.

—Baserritarrak askotan aipatzen dituzu, euskara on eredutzat. Baina baserritarrak gero eta gitxiago dira, eta gero eta gehiago, aldiz, burmuinean erdara daukaten kaleta-

### “Esto es un claro separatismo, esan zuten Euskal Filologia sortzean”

rrak, eta horrekaz egin beharko da etorkizuna. Euskarak iraungo badu, onartu beharko dugu ez dela Leizarragarena bezain euskera garbia izango, ezta?

—Arrazoi handia daukazu: daukagunarekin egin beharko dugu, ez nahi genukeenarekin. Euskararik txarrena erdaraz egitea da, horretan denok ados. Gaztelania bera ere latinetik dator; latin txarra da, herriak lardaskatzen zuen latina. Hortik atera da

gaztelania, eta horregatik txarra da? Ez, desberdina. Euskararekin berdin. Nik diot gure gurasoen euskarari ondo eutsi ahal diogula, eta baditugu gero eta eredu gehiago, bide gehiago, euskara horri eusteko. Baina hala eta guzti ere bai guk bai gure ondorengoek daukagun euskararekin egin beharko dugu aurrera, eta hori euskara gordeko bada.

—Elkarrizketa hau egiteko aitzakia nagusia denez gero, maiatzaren 2an Deustuko

Unibertsitatean egingo dizuten (egin dizuten, irakurleontzat) omenaldiaz berba egin beharko dugu. Horren zergatia, hain zuzen, Deustuko Euskal Filologia ikasketak zeuk sortu izana da, orain dela 30 urte. Francoren gorpua bero egongo zen artean...

—Kontua zen Francoren denboran ere sorzitekeela, nire ustez. Baina zuzendaritzak ez zuen uste holakorik behar zenik. Nik, unibertsitate honetara etorri nintzenetik, hasiera-hasieratik esaten nuen: hemen euskal filologia sortu behar da. Beti eskatzen, eta haiek beti luzamendutan. Baina orain 30 urte, esan nuen: ezin daiteke horrela jarraitu, eta ohar bat bidali nuen prentsara, esanez: “Datorren urtean euskal

filologia hasiko da Deustuko Unibertsitatean”.

—Holan jakin zuten unibertsitateko agintariek?

—Bai. Eta errektoreak deitu zidan. Jatorra zen, katalana, baina gizajoa ez zen konturatu Euskal Herrian zegoenik ere. Pertsona ona, hala ere. Eta esan zidan: “Eres un chantajista”. Nik ezetz, berriz. “Hemen badira espainiar, ingeles, alemaniar, eta

frantses filologia, eta gure etxean ez da euskal filologiari egon behar?”, halaxe esan nion gutxi gorabehera.

—Euskal Herrian ez zen beste inon egongo noski...

—Inon ez. Handik bi urtera publikoan ere egin zuten, Gasteizen. Baina hau izan zen lehenengoa. Eta zuzendaritzakoek esaten zuten: “Esto es un claro separatismo”. Dena politikarekin nahasten.

—Eta hiru hamarkada hauetan, gero eta babes handiagoa igarri duzu?

—Euskal Filologiarentzat edo euskararentzat esan nahi duzu?

—Bientzat.

—Uste dut oraindik Deustuko Unibertsitatean euskara kontuak oso atzeratuta dabilzala. Aurrekoan ikasle protesta egin zen, karrera askotan gai bat ere ez dagoelako euskaraz.

—Nobelagilea ere bazara. Urte batzuetan behintzat askotxo jardun zenuen, alboratuta daukazu orain?

—Hara, orain arte atsotitz liburua presatzen ibili naiz, eta horrek denbora luzea eskatu dit. Orain BBK-k eskatu didan esapide hiztegia egiten nabil. Horrekin ematen dut egun osoa, goizeko zazpitan jaiki eta gaueko hamarrak arte.

—Sasoia baduzu beraz...

—Bai, pozik nago alde horretatik. Jo eta ke nabil. Eta baditut hiru nobela ia bukatuta, baina astirik ez burutzeko.

—Zure nobela gehienak polizia nobelak dira, oker ez banago...

—Behintzat famatuena.

—Harrigarria da gero zu bezalako akademiko batek polizia eleberria landu izana gehien! Ez dakit zelan esan... genero arinegia emoten du, polizia nobela

bikainak idatzi diren arren...

—Nik umetatik izugarrizko afizioa izan dut irakurtzeko eta filmak ikusteko, eta garai batean, batez ere estranjerian nengoanean, gauza bat ikasi nuen: polizia eleberriak oso onak dira hizkuntzak ikasteko, ondo eginda baldin badaude. Eta polizia eleberri asko irakurtzen ditut, ezin dut utzi. Orain gutxi Indian egon naiz hindi ikasten, eta han ere, ikasteko, polizia eleberriak irakurtzen nituen. Eta berdin Moskun, eta Alemanian... Alemanian nengoela, hain zuzen, pentsatu nuen: idatzi egin behar dut bat!

—Bide batez: zenbat hizkuntza dakizu?

—Batzuk besteak baino hobeto, baina bederlatzi: euskara, gaztelania, ingelesa, alemana, errusiera, frantsesa, italiara, latina eta hindia. Baina idazteko euskara besterik ez. m

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....  
 Kalea & zenb.....Herria.....  
 e-mail.....Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
 Kontu zenbakia (20 digito).

OOOO OOOO OO OOOOOOOOOO

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
 tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31






## Andra Mari, zaharra baina berri

Ez dago zehazki jakiterik noiz eraiki zen Getxoko Andra Mari eliza. Historia liburuek Getxon XIV. mendean monastegi bat bazegoela aipatzen dute, eta antza, monastegi haren gainean altxatu zuten gaur egungo Andra Mari eliza. Jakin badakigu ere, Asua-Martiartu etxeari loturiko jauntxoren baten aginduz egin zela. Elizari buruzko lehenengo aipamen zehatza 1624koa da, urte horretakoa da-eta aurkitu den bataio libururik zaharrena. Bada, luzaroan eliza horrek gaur egun daukan egitura bera eduki du. Zaharberitze lan asko egin dira bertan, baina aipagarriena argazki hauek erakusten dutena da: Don Francisco Antxustegi Jaio (37. orrialdean azaltzen da) abadearen aginduz 1960ko hamarkadaren akabuan egin zirenak. Erretablo zaharra kendu zuten, kanpoko ormak garbitu, elizaren atzealdean herriko baserrien izenak zizelkatu zituzten...

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**















maiatzaren

11tik aurrera

**berria berria ≈ berria<sup>2</sup>**

kazeta eredu berria

berritzailera, ezberdina, interpretatiboa, kalitatezkoa, modernoa,...

**GUREAN ULERTUKO DUZU**

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



## zineeskola

Oskar Fernandez

## Zinema gutxietsia

Zinemaren hastapenak oso arrakastatsua izan ziren hemeretzigarren mendearen amaieran eta hogeigarrenaren hasieran. Baina haren oihartzuna ez zen guztien artean zabaldu. Garai hartako intelektualek, oro har, gaitzetsi egiten zuten. Beraz, zinemaren arrakasta itzela beste mota bateko pertsonen artean bilatu behar da, eta zalantzarik gabe, horiek ez ziren antzokietara, museoetara edo kontzertu aretoetara joaten zirenak. Guztiz kontrakoa, alegia, zinemaren ikuskizuna gogoko zutenak barraketan edota azoketan ibiltzen ziren. Alabaina, eurak ere hasi ziren zinemaz aspertzen. Ez da inolako azterketa sakonik egin behar herritarren artean asperraldia zerk sortu zuen jakiteko. Zinemaren lehenengo bost urteetan gutxi gorabehera, filmetan trenen helduerak eta fabriketako langileen irteerak etengabe errepikatzen ziren, ikusleen begi-niniak asebeste arte. Hurrengo urteak ez ziren batere oparoak izan gidolariak oso txarrak baitziren. Zinemak betiko gaiak jorratzen zituen eta ez zen gai izan kontatzen zituen istoriotxoei garapen dramatiko emateko. Gauzak horrela, 1907an lehenengo krisia sortu zen, garai hartako intelektualentzat zinema plebeioentzat zen eta beraz, txanponak irensten zuen makina edo barrakak bezala ikusten zuten zinema. Giro hartan Georges Duhamel, frantziar idazle oparo eta ezagunak, zinemari buruz zuen iritzia sostengu handia lortu zuen. G. Duhamel Goncourt sari ezaguna irabazi zuen eta Frantziako Akademiaren partaide izendatu zuten. Hau zen bere iritzia: "Esklabuen plazerra, miserableentzako denbora-pasa, irudien txorrota, ipurdietarako erosotasuna, amets politen aztarnak zarama izango balira bezala arrastaka eramaten dituen estolda da zinema". 4

## Bilbok ateak zabalik fantastikoari

Fantasiaren arrazoiak batuko ditu zaleak **XII. FANT** zinemaldiaren altzora **hilaren 10-14** bitartean

**Hamabikoa** beteko du aurten Bilboko Zinemaldi Fantastikoak, FANTek. Hastapenetatik egin legez, oraingoan ere nazioarteko estrenaldiak lan klasikoakaz batuz osatu dute egitaraua. Hala, Marc Forsterren *Transito* filmak emango dio hasiera zinemaldiari, eta besteak beste, Emanaldi Berezien sailean *The Proposition* (Nick Cave) lanaren estreinaldia eskainiko dute. Osterantzean, FANT 12 Sail Ofizialean emango dituzten pelikula ondorengoak dira: *Allegro*, *The doll master*, *Frostbiten*, *Incident at Loch Ness*, *Liceberg*, *The piano tuner of the earthquakes*, *Strings*, *Trouble* eta *Zombie honeymoon*.

FANT 100 izenburupean eskuratzeko gaxkak diren haribitxiak batu dituzte, adb.: FANT Erreskatean sailean *Cuando el destino nos alcance*, *Los cuentos de Hoffman*, *Donde nacen y mueren los sueños*, *Katuwira*, *Reconstruction* eta *The wicker man* lanak eman-

## «Estreinaldiak zein klasikoak, ezagunak eta ezagutzeok... aukera ederra FANTen»

go dituzte. FANT Maisuak tarreak Robert Wise, Roger Corman, Michelangelo Antonioni eta George Lucasen lanei begiratu die, zuzendari bakoitzaren film bana pantailaratu. Japan Cult Cinema alorrak gurean ia

Laster informazio gehiago: [www.zinebi.com/fant/](http://www.zinebi.com/fant/)

ezezaguna den Kinji Fukasakuren ganster zinearen bi pelikula eskainiko ditu eta 50-eko Zientzia Fikzioa sailak *La humanidad en peligro* eta *El Experimento del Dr. Quatermass* berreskuratu ditu. CINEASIA aldizkariak aukeraturako Hong Kong, Japonia eta Indiako lau film fantastiko ikusteko aukera ere egongo da. Eta ezin ahaztu eta aipatu barik utzi film laburrei eskainiko dioten tarrea, 13 film emango dituzte; eta horrez gainera, Nontzeberri guneak antolatutako sareko film laburren NontzeFlash eta NontzeFilm lehiaketetako lanak ere bai. m

Ez galdu > *Darwin's nightmare*

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: maiatzaren 12a, barikua • Ordua: 22:00 • Zinema Paradiso



Dokumental bikain eta interesgarri hau koprodukzioa da, Austria, Belgika, Frantzia, Kanada, Finlandia eta Suedia inplikaturik daude. Darwinen amesgaiztoaren atzean eskarmentu handiko zinegilea dago: Hubert Sauper austriarra. Gizon honek 1988. urtean bere lehenengo dokumentala zuzendu zuen. Geroztik beste zortzi dokumental ekoiztu ditu. *Darwin's nightmare* (Darwinen amezgaiztoa) Europako Zinemaren saria lortu zuen dokumentalik hoberena izateagatik. Hubert Sauper gidoiaren eta argazkiaren arduraduna ere izan da. Zuzendariak mendebaldeko estatuek Afrikan garatzen dituzten proiektuak eta asmoak era bikainean salatzen ditu. Filma elkarriketaz horniturik dago eta 107 minutuan arrantzale gazteak, fabriketako nagusiak, eurokomisarioak, hegazkinetako pilotuak eta abar agertuko zaizkigu. Dokumental inolako trabarik gabe salaketa sakona eta dokumentatua egiten du.

## Ehiztari Erromotik

Lehenengo diskoa atera dute; rocka, sentimenduak eta kritika itxaropentsuak

Harremanetarako: Baga Biga 94 601 12 06 edo 618 072 076. Informazio gehiago: [www.ehiztari.com](http://www.ehiztari.com)

**Ehiztari Beltzak** legez aurkeztu zen 1995ean hirukote erromoztarrak: Iurgi Latxa (gitarra), Iñigo Rozas (baxua) eta Asier Martinez (bateria). Orain dela 5 urte edo Jon Montanhez bilbotarra batu zitzaizen abeslari lanetan eta geroztik Ehiztariaren epe berriari ekin zioten. 3 maketa kaleratu zituzten, eta ez zarata atera barik hildako horietakoak: Leioa eta Basauriko maketa lehiaketak irabazi zituzten, Euskadi Gazteko maketa lehiaketako entzuleen saria jaso eta 3 bider finalisten artean sailkatu, eta Villa de Bilbaokoan ere azken aukeratuen artean egon dira. Taldearen izen berbera daukan estreineko lana Oihuka diskotxueagaz merkaturatu dute. 10 kantuko diskoa

eta Iurgik azaldu legez, "esan daiteke rock melodikoa dela, melodiari garrantzi handia ematen diogulako eta stoner edo hard-rock ikutuak ere izan dituzake, baina rocka da batez ere; gaiak dagokionez, kanta batzuek sentimenduei abesten diete, besteek gaur egungo gizarteari kritika egiten diote, baina beti mezu itxaropentsu batez, gurea aldatuz gaitzetzeko alda litekeelako mezua zabalduz". Hurrengo kontzertu batzuk: ekainaren 2an Musutruk-en (Gemika) eta ekainaren 8an Kafe Antzokian (Bilbo). Bide batez, musika eta kultura bultzatzeko gazteentzako lokalak eskatzeko aukera baliatu gura izan dute, eta "zuzenekoetan gozatzeko eta gozatzeko" asmoa daukela goraiatu dute. m


## diskoak

**Ilunago, ederrago**  
Lehiotikan  
Gor



Talde inuidarraren laugarren lana dugu honako hau eta ohi baino instrumentazio handiagoa ekarri digute oraingoan. Oinarria sendotu egin dute eta, punk-rock edo HC formatuko abestiak berri ere jorratu badituzte ere, nabardura berriak eta beste musika batzuetako eraginak nabari daitezke. Diskoa 14 abestiz eta Iñigo Ibarak egindako bertso batez dago osatuta; azken hori tronpetak, panderoak eta trikitiak lagunduta.

**Korrontzi**  
Korrontzi  
Baga-biga / Nube Negra



Talde gaztea den arren, trikitilari zaharrak omendu gura izan ditu, nagusiei bizi izan zituzten garai haiek gogoraraziz eta gazteei orduko jendearen bizimodua erakutsiz. Bi urteko ibilbide musikaren ondoren, lana pauso bat aurrerago eroan gura izan du taldeak eta diskoa Euskal Herri musikaren ondoren, lana pauso bat aurrerago erabaki du. Gainera, antzinako trikitilarien irudiekin osatutako laburmetraia eskaintzen du CDak.

**Collected**  
Massive Attack  
EMI



Bere lehenengo bilduma diskoa aurkeztu du Massive Attack talde indartsuak. Betiko abestiez gain, *Live with me* abestia plazaratu du Bristolgo taldeak, zeinean Terry Callier jazz abeslariak hartu duen parte. Azkeneko lan honek zati bi ditu: lehenengo diskoan, musikariaren arrakasta guztiak egongo dira bilduta, tartean, *Unfinished symphony*, *Protection* eta *Angel*. Bigarrenean, berri, orain arte argitaratu bako lanak eta bitxiak.

## oskorri &gt; hamargarrena



The Pub Ibiltariaren 10. diskoa plazaratu du Oskorrik. Ohi legez Santo Tomas egunean Bilbon eskainitako kontzertuaren

grabazioak osatzen du lan berria. Pasa den urteko abenduaren 21ean Pio Baroja plazan bildutako laguntzaz abestutako 17 kantu herrikoia batu ditu Oskorrik eta kantuen play-backa eta partituras ere aurkeztu ditu. 1997an abiatutako The Pub Ibiltaria proiektuaren bidez, kantutegi herrikoia berreskuratzeko eta plazaratzeko taldeak egindako lan eta esfortzua estimagarria da, eta gainera adierazi dutenez, bide horretan jarraitzeko asmoa daukate harik eta batzeko euskal kantu herrikoirik gelditzen ez den arte. Zorionak, bada, 10. urteurrenean!

[www.oskorri.com](http://www.oskorri.com)

## Leioa &gt; PopRock lehiaketako finalak

VI. PopRock Lehiaketaren finalak hilaren 12an (metal alorra) eta 13an (pop-rock alorra) egingo dira. Metaleko finalerako hurrengoak sailkatu dira: Bioterror, Reo eta Eter; eta pop-rockekoan Dias de Incienso, Whitewood eta Mono. Finaleko kontzertuak Aldapa auditorioan emango dituzte. Ondoren, 2 alorretako irabazleen artean bat aukeratu dute eta horrek CDa grabatzeko aukera izango du. Horrez gain, Euskara Zerbitzuak ematen duen abesti onenaren saria NUN taldeak jaso du eta Bertoko Talderik Onena Konter taldea aukeratu dute.



etorri  
eta  
ikusii!

**MORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algortia

## Bihotz Handi

Getxoko odol emaleak

### Odola emateko egunak

ordutegia: 16:30 / 21:00

### Algortako San Nikolas plaza maiatzak 8

### Areetako anbulatorioa maiatzak 9

Zatoz odola ematera,  
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389



**BASALBO BASERRIA**

## JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

## Euskaraz garaikidetasunez

**Paul Austerrek** plazaratutako nobela berria euskaraz irakur daiteke dagoeneko

**Pozarren** larregi esatea litzake, oster, gutxienez ezpain arteko zuria ikus dakiekeela dabilta Paul Austerren irakurzaile euskaldunak. New Jerseyko (AEB) idazleak urte hasiera aldera argitaratu zuen *Brooklyn Follies* azkenengo nobela, eta bi hilabeteko tartean euskarara ekarri du Oskar Aranak. Hala, gaztelaniaz, katalanez eta galizieraz ere sasoi berean plazaratu dute. *Brooklyngo erokeriak* egileak idatzi duen azken lana da euskaratu dioten lehenengoa. Ingeles literaturan lizentziatuak hastapenetan poesia eta saiakerak idatzi zituen aldizkarietan eta

### «Kaleratu duen azkenengoa, euskaratzen duten lehenengoa»

nazioarteko oihartzuna *New Yorkeko Trilogia* bildumak (1985-86) eman zion, ondorengo emari naroaren artean aipa daitezke: *El palacio de la luna* (1989), *La musica del azar* (1990), *Leviatan* (1992), *El cuaderno rojo* (1993), *Mr Vertigo* (1994), *El libro de las ilusiones* (2002), *La noche del oraculo* (2003), etab. New Yorken bizi den nobelagile, poeta edota gidoiariaren lanek badaukate zelanbait nabarmeneko ezaugarriak: norbanakoaren izaeran arakatzeko eta bilatzen dihardu,



Paul Auster

egunerokotasuneko gertaeretan, kutsu misteriosuagaz, eta patuak, zoriak, halabeharrak eta menturak esateko asko dutela sinestuz.

*Brooklyngo erokeriak* kaleratzea ezin esan Alberdania argitaletxearentzat esfortsu arina izan denik, inola ere zorakeria. Literatura Unibertsala bildumari garrantzia kendu barik, nazioarteko literatura garaikidea garaikidetasunez euskaraz ematea oraindik ere ia jorratu bako oihana datekeelako. Alberdaniak katalogatu du lehenengotako landarea eta euskal irakurleek dute orain "ezagutarazteko" eginbeharra. Ahalegin antzua izan ez dadin, kexatzen eta eskatzen jarraitu ahal izateko. <sup>m</sup>

liburuak



**Arima enkonjatuak**  
Xabier Mendiguren Elizegi  
Elkar

Politika, sexua, maitasuna eta bizitzaren gazi-gezak lau istorio-tan uztarturik dakartzkigu Xabier Mendigurenek bere azken lanean: irakasle eta ikasle baten arteko maitasun istorioa, sexu arakastaren inbidia, hiru lagun-en arteko triangulua, egoera politiko korapilatsu baten inguruko kontakizuna...



**Ibrahim jauna eta...**  
Eric-Emmanuel Schmitt  
Erein

Parisen dagoen Kale Urdin judutarrean 60. hamarkadan bizi zen Ibrahim arabiar bakararen eta Momo deituriko ume baten arteko adiskidetasuna kontatzen digu eleberririk honek. Istoria benetan hunkigarria eraiki du egileak eta hausnarketarako hainbat une eskaintzen du.

[kirola]

### Fadura Igeriketa taldeko laukotea

"Crawl igeriketan Euskal Herriko errekorra dugu eta azken 5 urteotako irabazleak gara"



Jendeari igeriketa taldera hurbiltzeko eta bertan jarduteko gonbidapena luzatu die Mikel Bildosolak

**Fadura Igeriketa** taldeko errelebu taldea duzue goikoa: Mikel eta Iñaki Bildosola anaiak, Ibon Arregi eta Beñat Elorriaga. 23-27 urte bitarteko laukoteak aspaldi dihardu alkarregaz igerian, baina errelebu talde legez orain dela 6 urte inguru batu ziren.

Mikel Bildosola taldekideak jakinarazi duenez, azken 5 urteotan Euskal Herriko txapelketa bereganatu dute crawl estiloko distantzia desberdinetan (4x50, 4x100 eta 4x200) eta euren esku-besoetan dago euskal errekorra ere. Horrez gainera, estiloko 4x50 eta 4x100 Euskal Herriko txapelketako irabazleak ere badira. Halere, aurtengo denboraldiaren gainean itaunduta hauxe azaldu du Bildosolak: "Udako txapelketarako nire anaia ez da egongo eta orduan ez daukagu errelebu lar fuertea, parte hartzearen goaz, 10 onenen artean edo gelditzea da asmoa, ez dago txarto, baina txarto ohituta gaude!".

Osterantzean, banaka ere lehiatzen dira eta horren inguruan Mikel Bildosolak aurtengorako dauzkan erronkak kontatu ditu: "Hiru final A egitea, hau da, nik dibardudan 3 probetan

Espainiako 8 onenen artean sartzea; 2004-2005ean Espainiako A mailako 8. gelditu nintzen proba batean eta 13. beste batean, Udako txapelketan; eta aurtengo esandakoa, 5. edo gelditzea 50eko bi probetan, bai crawl eta bai tximeletan; eta 100 crawllean 8. edo". Fadura badauka Bizkaia mailan beste errelebu talde bat, gaztetxoak oraindik, eta Bildosolak euren lekukoa hartzea espero du.

### «Ordutegi hobea aldarrikatzen dute igeriketa zein waterpolo taldeentzat»

Beste kirol "lainez betetako edo estimatugoa" batean jardungo balute seguru jarraitzaile, zale, lansari, laguntza... gehiago eta handiagoak izango litzuketela, zalantzarik ez dago. Baina igerian dabilta, eta puntako igerilariak izanda ere, itolarrin daude batzuetan: "ordutegi hobea" aldarrikatzen dute bai igeriketa taldearentzat zein waterpolo taldearentzat, "gaueko 9:30etik aurrera da guretzat bakarrik igerilekua, baina 10 urteko ume bat ordu horretan entrenatuko da?" <sup>m</sup>

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol  
moda



**350** <sup>M<sup>2</sup></sup>

KIROLERAKO GUZTIA!!


**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-

ERVITEC

Lacofris S.L.



• MARKA GUZTIAK  
• 24 ORDUTAN ERANTZU-  
NA  
• 3 HILABETEKO GARAN-  
TIA  
• 25 URTEZ ZURE ZERBITU-

& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430  
**HIRURAK**

Sarrikobaso 15



**Paul Rios** > Lokarriko koordinatzailea

## “Ezinbestekoa da gizartearen parte hartzea bake prozesuan”



Lokarrik akordioa, kontsulta eta adiskidetzeari bultzatuko diutela dio Paul Riosek

**Paul Riosek (Algorta, 1974) Zuzenbidea ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean, baina, abokatu bezala jardun beharrean, ikasitakoa Euskal Herriko bakegintzan aplikatzea erabaki zuen orain dela 13 urte, Elkarririk Algortan emandako hitzaldi batera joan ostean. Gaztea da oraindik, alabaina, gizartearen hitza eta erabakia ahalik eta leku gehienetara zabaltzeko erantzukizuna hartu du bere gain Lokarriko gidariak.**

—Agur Elkarririk, ondoetorri Lokarri. Zein da bien arteko aldea?

—Helburuak ezberdinak dira. Elkarririk biolentziarik eza eta bazterketarik gabeko elkarrizketa lortu gura zuen bitartean, Lokarrik akordioa, kontsulta eta adiskidetzeari bultzatzea bilatzen du.

—Zeintzuk dira Lokarriren helburuak?

—Gure ekimenak hiru zutabe ditu. Lehenengo eta behin, gizarteak informazioa behar du bake prozesua zelari dagoen jakiteko eta, horretarako, prozesuaren behatoki

bat bultzatzen ari gara une honetan. Bigarrenez, gizartearen parte hartzea ezinbestekoa da aurrera egiteko; izan ere, momentu txarrenetan itxaropenaren eta irtenbide bat aurkitzearen bultzatzailea izan da beti. Azkenik, oraindik kanpondu barik dauden arazoak daude (biktimak, presoak, torturak...) eta ez dugu onartu prozesua denon artean aurrera eramane behar dugunik, beraz, puntu aldarrikatzailea beharrezkoa da.

—Kaleko jendeak, agian, nahiko gatz eta urrun ikusten du bakea...

—Jendeak oso argi dauka zelan izan behar duen bake prozesuak, printzipioak argi ditu. Alabaina, izan ditugun beste aukerak zapuztu direla ikusita, normala da hesi psikologiko bat ezartzea. Behinbetiko bakea ez dela uste dute askok.

—Orain zeintzuk dira eman beharreko pausoak?

—Alderdi arteko elkarrizketa gunea sortu, bereziki, mahaiaren oinarriak eta prozedurak adosteko. Horretarako, beharrezkoa da giza eskubide guztiak errespetatzea. Momentuz, su-etena daukagu, baina kale borroka desgertu behar da, torturak eta sakabanaketa amaitu behar dira... Gainera, ez dugu ahaztu behar Batasuna legez-kontraktatzat jo dutela.

### «Asko dago konpondu barik: biktimak, presoek sakabanaketa, torturak...»

—Gizartearen papera prozesuan...

—Alderdi politikoek prozesua eurek bakarrik aurrera eramane dezaketela uste dute. Irlandan, adibidez, pena bat izan zen gizarte antolatutik ez egotea. Hemen badago eta oso aktiboa da, beraz, hori galtzea eta alde batera uztea izugarriko akatsa izango litzateke. Parte hartzea sustatu behar da eta Lokarri izango da dinamizatzailea.

—Errealitate ezberdinak, konponbide ezberdinak?

—Ziur asko bai. Nafarroako errealitatea, adibidez, ezberdina da. EAEko gobernuak prest dago konponbide bat aurkitzeko eta Nafarroakoa, berriz, oztopoa da gaur egun eta seguruenik etorkizunean ere horrela izango da. Bestalde, Iparraldean lehentasunak bestelakoak dira, han euskal departamendua da eta daukaten beharrezkoak handiena. Gainera, Frantziak bigarren mailako papera hartuko du auzi honetan. Beraz, kasu bakoitzean aztertu behar da ze bide hartu.

### Esakere > “Nor norainikoa dan ikusi”



Irudia: Gorra Vazquez

Modu asko dagoz norberak zenbet ahal daun neurtuteko. Eta askori gorputzek eskatuten dotson modu da beste baten kontrari ibilte, ia nok gehiau egin. Atxiñe-atxiñeko modu dogu hori norberan ahala neurtuteko: ezta modurik lasaia eta osasunerako onena beti, baia gure izakerek eskatu egiten dosku eta ezin dogu albo batera itxi, eta holan ibilten gara batzuten, bata besteaz burrukan edo ezipabere burrukan dabiltezenari aupaka.

Esakera hau R.M. Azkuek baturiko da, eta beran “Euskal Herriaren Yakintza” behar handin topako doazue.

### Gureberbakere 76

## ESAKERA ZAHAR BATZUK

Testua: **Xabi Bilbao**

Batzuk ondiño gorde barik dekuz, badaezpadan, neguko abriguk eta kaltzetin lodik, baia bagoaz apurke-apurke ingiruten udebarriko kolorek ikusten, temperaturrek sentiduten, eta soinu batzuk entzuten: kukun kantuk esate baterako. Badekuz euskeraz sari entzuten dan baia gixi ikusten dan txori honen ganerako esakerak. Hemen doaz R.M. Azkue, G. Garate eta J. Mokoroa euskalzale handik baturiko esakera batzuk:

- *Erramuetan kuku, San Pedrotan mutu* (Garate).
- *Kukuak egiten dau maiatzean kuku, garagarrilean gelditzen da mutu* (Azkue).
- *Kukuak txantsangorria inude* (Garate). Hau da kukuk beste txori batzuen habiten itxiten dauleko arrutza, beste txorik berotu daien.

Sari kukun izena erabilten da personan ganerako kontuk aitetuteko. Esate baterako, danok entzunte deku, kuku urten lehelengoz entzuten dogunen sakela diruez "bero" auki ezkeron, ugaritasune segurua dala urte guztireko... eta ostera hogerelekorik ez darogula entzuten badogu... ai ene!

- *Zuriko bat sakelean ez dogula arripau gaitu txori alper orre!* (Mokoroa).

Ondo ezagune da, batez bere umekaz gauzenen, "kuku in" esate, ostuke ibilte esateko:

- *Sagutxu baltz asko egozan kuku ta kuku, leio ta ate ostetan...* (Mokoroa).

Baia beste gauza batzuk esateko bere erabilten ixen daude "kuku" gure aitite-amamak.

- *Zeri begira dago, bearrean asteko: kukuak etorri arte?* (Mokoroa). Hau da, denpora alperrik emoten egotea.
- *Kukuak zazpi urte eñ zittuen eskolan da ikesi euen: kuku* (Garate). Ikasle ona ez izete.
- *Kukuak bere izena kantaten* (Garate). Harrokeri.
- *Martxoan kukuak jo baño, otsue ardiarten ikusi oba* (Garate). Gauza bakotzak beran sasoi dekola.

Eta agur, baso arten ibiltan bazoaze, eroizue euro bat edo bi sakelan!

# I

## Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23  
Telletxe 1 T: 460 27

### Algorta

## Arasa

Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

## Errotalde ileapaindegia

**HARTU TXANDA TELEFONOZI!**

**T: 460 38 90**  
Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

## GARBEO

GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5  
ALGORTA

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

**HARTU TXANDA**





gaizka escudero / basalboko

## Txarri solomoa

laranja saltsaz eta sagarraz

Astirik ez eta gonbidatuak etorriko zaizkizula etxera? Erraz eta arin egiten den plater hau proposatzen dizuet. Hasteko, txarri solomoa osorik gatz-piperztu eta zartaginean su bizian urreztat. Gero labean bost bat minutuz eduki barrutik egin arte. Eginda dagoenean xerretan zatitu. Bestetik, salta prestatuko dugu. Basobete ozpin eta basoerdi azukre sutan ipini hamar bat minutuz. Gero basobete laranja-zuku eta labean okelak askatu duen zuku ere gehitu eta salta loditu arte su ahulean eduki (hamar minutu). Salta hau solomotxoan gainean bota eta kitto. Sagarrekin ere lagundu daiteke platera. Horretarako sagarra garbitu eta lau zatitan ebaki. Gero gurinean frijitu azukre apur bategaz. On egin! m

osagaiak (lau lagunentzat)  
txarri solomotxo bat • gatz lodia • piper hautsa • ospina  
laranja zuku • sagar bi



itsaso arana / jolastokikoa

## Modan

Gauza jakina da egiten ikusi duguna geuk ere egiteko ohitura hartzen dugula. Ardoari dagokionez, gure gurasoek ospakizun berezietan, esaterako, Tondonia, Arana edo Ardanza bat eskatzen dutela ikusi badugu, gehienetan gauza bera egingo dugu guk aurrerantzean. Baina ohiturari beste indar bat, berrikuntzaren indarra kontrajartzen zaio eta horrela gertatzen dira aldaketak. Ardotan modarik bai? Ba, bai. Gaur egun modu askotara deitzen zaie modan dauden ardoei: egile ardoak (vinos de autor), izen handiko ardoak (vinos de alta expresión) edo sorterriko ardoak (vinos de terruño). Baina zer ezaugarri dute gaur egun modan dauden ardoek? Batez ere bat: ardo frantsesak imitatzen dituzte gehienek, hau da, taninoak erraz igartzen dira, gorpuzdunak dira, mazerazio luzekoak, egilearen ukitua bilatzen da, eksklusibitatea... Denak ere oso garestiak izaten dira, 30 eurotik gorakoak (Abadia de Retuerta, Artadi, Viña el Pisón, Pingus...).

### «Ardogile asko ardo frantsesak imitatzen dabilta nazioarteko merkatuan euren produktoak kokatzeko»

Eta bigarren galdera hau litzateke: Zergatik gertatzen da hau? Ardo frantsesak izen handikoak dira eta mundu osoan edaten dira. Gauzak horrela, ardogile askok nazioarteko merkatuan euren produktua kokatu ahal izateko bide erraza ikusten dute era honetako ardoak egite horretan. Bestetik, esan beharra dago bide hori jarraituta, ardo klonikoetarako bidea hartzen dela, hau da, azkenean denak antzeko. m

## Haritzpe kafetegia

Euskal jaki eta pintxo bereziak



Goio Chamorro eta Manu Concepcion

**Orain dela** bederati urte ireki zituen Manu Concepcionek bere negozioko atea lehenbiziko aldiz. Kafetegia izateaz gain, 50 pertsonarentzako jatetxea ere bada Haritzpe eta euskal jaki tradizioetan oinarritutako karta eskaintzen du. Horrez gain, ugariak dira bertan dasta daitezkeen pintxo landuak; besteak beste, makailoa pil-pilean, ahuntz-gaztaiagaz betetako piperrak eta kalabazina foiegaz. Gainera, astelehenetik eguenera, 20:30etik 22:30era, pintxo bi jan eta bat ordaintzeko eskaintza egiten du kafetegia.

Aste barruan, inguruko bulegoetako langileek betetzen dute lokala; izan ere, mota guztietako kafeak (capuccino, kafe irlandarra...), armozu bereziak eta eguneko menu

merkeak (8 euro) eskaintzen ditu. Ardaoen karta ere nahiko zabala da, jatorri ezberdinetako edariakaz osotuta.

Aurretiaz adostutako menuak enkargatzerik ere badago, gutxienez, egun bi arinago egiten bada (20 eta 35 euro bitartean, hautatutako jakien arabera). Eskaintza anitza da: okela, arraina, mariskoa, parrillada... Asteakabuetan, berriz, menu berezia (15,05 euro) eskaintzen du Haritzpek.

Lokaleraz zerbait hartzera hurbildu gura duen orok: astelehenetik eguenera, 7:30etik 23:30era eta; asteakabuetan, 10:00etatik 00:30era. m

**HARITZPE Jose Ramon Aketxe, 6 - Leioa**

**gOZOLABEA**

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**Getxo 2006**

## San Isidro

### Larunbata 6

**Euskal Dantzak Umeen jaialdia**  
18.00 Dantza taldeen agerraldia frontoian.

- Agurra Dantza Taldea (Algorta)
- Aratz Dantza Taldea (Gorliz)
- Beti Jai Alai (Basurto)
- Gaztebarri (Dima)
- Itxartu (Algorta)
- Txikiak (Lamiako)
- Itxas Argia Dantza taldea (Getxo)

### Ostirala 12

- **21.00** Poteo elektrotuneroa. Malakatetik Elizaraino Elektrotunarekin. Kontzertuak Eliza ondoan

### Larunbata 13

- **10.00** Buruhandiak eta umeentzako puzgarriak!
- **21.00** Herrien jaialdia. Dantza ikuskizuna: Itxas Argia eta Italiako taldea
- **22.00** Kontzertuak Eliza ondoan Kloratita + All Jazz Era

### Igandea 14

- **09.30** Plater-tiroa. Izena emateko 12.00ak arte. Tiro zelaian bertan, Galeako fortean
- **11.00** Baserriko produktuen Azoka.
- **18.00** Plater-tiro txapelketaren sari banaketa

### Astelehena 15

- **12.00** Meza nagusia. Aurreksua eta hamaiketakoa
- **17.30** Idi probak (probalekuan)

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
**ezagutzen al duzu?**  
herriko pintxorik onenak ditugu  
etorri eta probatu!!  
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

**Turikaldai**  
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE **Usategi** ALGORTA  
Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

**Egunkariak**  
prentsa eta aldizkariak  
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!





**prentsa • aldizkariak**  
 GETXOKO KIROL PORTUA  
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
 ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

**GOIZEAN**



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
 Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
 T: 430 22 13              T: 460 02 88  
 GETXO                      ALGORTA


**aldizkaria  
 etxean jaso  
 nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz  
 94 491 13 37


[horoskopoa]

**URA**  
 t



**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
 Zure laguna ez da kokiltzen den horietakoa, gorringo biko pareta du eta zure jarrera ez bazaito gustatzen esan egingo dizu, horrek ez du-eta mingainean zimurrik. Aurrerantzean, beraz, kontuz ibili!

**OTSOA**  
 t




**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
 Batere kasurik egiten ez dizun arren, aspaldi duzu planta oneko gazte hori begiz jota. Horrela jarraitzen baduzu, txakurra garitan bezala geratuko zara, bakar-bakarrik. Itsaso zabalean arrain beraz, kontuz dago, espabilatu!

**ADARRA**  
 t




**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
 Beti zaude lainopian! Zure jarrera horrekin ez zara urrunera ailegatuko eta lana bilatzen hasteko garaia heldu zaizula uste dute zure ingurukoek. Pinterdiko gazte horietako bat zarela esan nahi didazu? Astia daukazu oraindik hori konpontzeko...

**AITZURRA**  
 t




**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
 Ondorioetan pentsatu barik egiten dituzu gauzak. Ez al zara konturatzeko maite dituzunak min ditzakezula? Egindakoak egin eta gero arduratuta zauden orain, ezta? Ba zeuk bakarrik egin beharko diozu aurre.

**HOSTOA**  
 t




**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
 Parrandaz parranda zabilta azkenaldi honetan. Ez al da atsedena hartzeko garaia? Zure amaren aldarrik hemendik entzun daitezke: “Ze ordu dira hauek etxera helteko?” Aldatu beharko duzu, ez daukazu-eta umekerietan ibiltzeko adinik.

**EGUZKIA**  
 t




**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
 Inoiz ez duzula inor hainbeste maitatu? Ezin duzula ezta egun bat ere eman hura ikusi barik? Bera al da zure amesteko errege edo erregina? Benetako bihotzeko mina eragiten dizula? Ba esaiozu motel!

**GARIA**  
 t




**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
 Azkeneko egunetan zuri ezer esatea airera berba egitea legez da. Ez duzu kasurik egiten, ezta agindurik betetzen ere. Agian, bakarrik eta lasai egon gura duzu eta ez zara hori eskatzera ausartzen.

**LASTOA**  
 t




**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
 Ze pozik zauden egunotan! Berri erromantikorik ba al daukazu? Zure bihotzeko maiteak erantzunik eman al dizu? Ala betidanik amestutakoa lortu duzu behingoz? Dasta ezazu garaipenaren ezti goxoa, normalean gutxi dirau-eta...

**IRATZEA**  
 t




**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
 Zerbait lortzen ez duzunean haserretu egiten zara; izan ere, amatxoren begikoa izan zara betidanik eta gura izan duzuna eman dizu. Ulertu behar duzu mundu errealean bizi zarela orain eta tipula malkoek ez dutela baliorik.

**META**  
 t




**(Irailak 17 urriak 16)**  
 Lanean hasi berria bazara, gomendio bat emango dizut: kontuz hitz goxoak esaten dizkizuten lankideekin, askotan euren interesen alde jokatzeko dute-eta. Ez fidatu koiperio halakoekin, normalean nagusiaren aldekoak izaten dira.

**HAZIA**  
 t



**(Urriak 17 azaroak 15)**  
 Zenbat kendu dizu oraingoan telefono konpainiak? “Hemendik aurrera kontrolpean izango dut gastatzen dudana”... Zenbat aldiz esan diozu hori zeure buruari? Neurri serioen bat hartu edo bestela akabo dirua eta... akabo telefona!

**NEGUA**  
 t



**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
 Koitaua! Udaberriko lore usainarekin eta eguzki epelarekin gozatu beharrean, alergiak jota zabilta kandela dariola momentu oro. Halere, poztasunez egiozu harrera aro berriari, udaberriak uda dakarrelako eta udak jaiak, eguraldi ona, oporrak...!

**mungia**  
 OKINdegia



*Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.*

*Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.*

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
 ALGORTA





denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin

1. Ipuin idazlea. 2. Oinarria. Kontsonantea. 3. Eramangaitz. 4. Musika nota. Aukera, egokiera. 5. Suge handia. Iparretarrak erakundearen siglak. Oxigenoaren ikurra. Sufrearen ikurra. 6. Bat. Bazegoen. Egile atzizkia. 7. Dei egin. ...jarri, bat etorri. 8. Amore eman. Ate, hitz elkarketan. Kontsonantea. 9. Baldosa txiki beiratu. Dauka. 10. Atzizkia. Sorteria.

Goitik behera

1. Itzurbideak, ihes egiteko bideak. 2. Ipar., apustu. 48 ordu barru. 3. Oinarizko edaria. Ohar, gaztigu. 4. Sendo, tinko. Hunoen errege hura, Erromaraino iritsi zena. 5. Zuri, noa. Europar Batasuna. 6. Gipuz., ginatke. Gorputz ondoez. 7. Emakume izena. Natura, hitz elkarketan. 8. Italiako eskualdea. Dago. Kontsonantea. 9. Bokala. Jupiterren satelitea. Lotan. 501. 10. Hats bahi.

Soluzioak

V	I	R	R	E	B	V	K	I	K
U	D	U	E	L	U	Z	A	V	A
T	V	A	T	V	I	S	T	E	T
S	O	D	A	U	T	I	E	D	S
L	E	C	H	E	N	Z	V	B	I
S	O	K	I	K	O	V	I	S	I
V	O	I	A	S	K	O	V	I	S
N	I	Z	N	A	N	V	A	E	R
R	A	R	O	I	N	A	R	H	A
V	I	L	E	A	G	I	L	E	A

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										



LEIOAKO JOKIN TABERNAK UTZITAKO ARGAZKIA

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Kartzelan egon zen sarritan
- Biolentzia bako borrokaren sinboloa
- India bere aberria askatasunerantz gidatu zuen

> Aurrekoaren erantzuna: Ramon Saizarbitoria

> Irabazlea: **Gotzone Agirre (Algorta) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



• Freexkue liburua

www.argia.com

Mus txapelketa Leioako Jokin tabernan, 1979

1968an hasi ziren Jokin tabernakoak mus txapelketa antolatzen, urte askoan iraungo zuen lehiaketa; izan ere, gutxi gorabehera, 1987ra arte musean jardun zuten. 1978ra arte, Luis Maria Olamendi izan zen txapelketaren antolatzailea, orduan bera zen-eta tabernaren jabea. Hurrengo urtean, aldiz, tabernak jabez aldatu zuen, baina jendeak musean jokatzeko jarraitu zuen eta Joaquin Gadanhak hartu zuen norgehiagoka antolatzeko ardura.

Parte hartuko zuten 50 bikoteak zozketa bidez erabakitzen zituzten eta azken urtean 140 bat pertsona aurkeztu ziren. Urte batean ere, finala Arkupe frontoian egin zuten, herritarrengan piztu zuen ikusmina zela-eta. Txapelketa amaituta, sari banaketaren unea heltzen zen. Argazki hau, adibidez, Lauroko Lekuona jatetxean aterata dago. Ez zuten dirurik ematen, sariak sinbolikoagoak ziren: garaikurra, txapela, ardo-botila... Bitxikeria bat: ikus ditzakezue podium bezala erabilitako edarien kutzak? m

Zutunik: Iñaki Aranburu, Josemari Eguskiza, Pedro Pina, Guillermo Lerra, Jose Luis Mateo, Iñaki Lanzagorta.

Makurtuta: Luis Maria Olamendi, Vicente Aranaga, Joaquin Gadanha.



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria



[aitormenak]

**JAVI CASAS** > Athleticceko jokalaria

# “Atzazalak jatea ohitura txarra al da?”

Testua: **Oiane Moran** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.**

Berba bakarrean laburtuko dizut: alaia.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Ez dakit zer esan, agian *Rambo*? Baina egia esateko, ez nuke inoiz pelikula batean parte hartuko.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Gandhi, askatasunaren alde egindako lanagatik.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Atzazalak jatea ohitura txarra al da?

**Aitor dezakezun bizio bat.**

Pastelak. Oso gozozalea naiz, baina futboleko jokatzeko dudak bitartean debekatuta daukat.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Oso gaztea naiz oraindik eta bidaiak piloa egin behar dut. Hainbat lekutara joan gura dut: Australia, Egipto, Erroma, Hegoamerika...

**Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?**

Gezurra eta traizioa. Lagun batek egiten badizu gogorragoa da.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Gabarra berriro ateratzea.

**Lo egiteko ezer janzten al duzu?**

Kamiseta bat eta galtzontziloak. Gutxi esango dute hemen biluzik egiten dutela!

**Zer gabe ezin zaitzke bizi?**

Sakelako telefonoa, auto eta... lagun barrik!

**Zein da ikusi duzun azken filma?**

*Crash*, biziki gomendatzen dut.

**Eta irakurri duzun azken liburua?**

*El tercer gemelo*, oraintsu amaitu dut. m

**LABURREAN**— Bilbon jaioa bada ere, gaur egun Sopelan bizi da Javi Casas Athletic futbol taldeko jokalaria. Azpimarratzekoa da oso bere gaztetasuna; izan ere, ezin dugu ahaztu 24 urte besterik ez daukela eta hori nabari zaio hitz egitean islatzen duen ilusio zein energiagatik. Joan den denboraldian jokatu zuen lehenbiziko aldiz talde nagusiagaz, Ernesto Valverde entrenatzaile ohiak aukera eman zionean. Alabaina, hasiberria den arren, Lehenengo Mailako jokalaria handiak gelditzeko indar nahikoa du botxoko taldeko defentsak. Futbola izan da txikitatik bere pasioa eta hori agerian uzten du, bere aisialdian gaztetxoek futbol talde batean aritzen da-eta entrenatzaile lanetan. Etorkizunari begira agian?

nolako ikasketak, halako etorkizuna

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA	Arrasate	Goierri	ate irekiak:
<b>Lehen zikloa</b>	<b>ikasmaila</b>	<b>ikasmaila</b>	
- Mekanikan Industri Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1., 2. eta 3.	
- Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	<b>ARRASATE:</b>
- Industri Elektronikaren Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	MAIATZAK 25, 2. zikloa
- Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	EKAINAK 10, Biteri Ikastetxe Nagusia
- Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	<b>GOIERRI:</b>
- Telekomunikazio Sistemetan Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	MAIATZAK 11
- Telematikaren Ingeniaritza Teknikoa	1., 2. eta 3.	1.	
<b>bigarren zikloa</b>			
- Industri Ingeniaritza	4. eta 5.	-	
- Industri Antolakuntzan Ingeniaritza	1. eta 2.	-	
- Automatika eta Industri Elektronikaren Ingeniaritza	1. eta 2.	-	
- Informatikan Ingeniaritza	4. eta 5.	-	
- Telekomunikazioetan Ingeniaritza	4. eta 5.	-	

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA	Oñati	Bidasoa	ate irekiak:
<b>Lehen zikloa</b>	<b>ikasmaila</b>	<b>ikasmaila</b>	
- Zuzendari Idazkaritza	1., 2. eta 3.		
- Enpresa Zientzietan Diplomatura. Ibilbideak:		1., 2. eta 3.	<b>OÑATI:</b>
- Nazioarteko Merkataritza			MAIATZAK 25
- Enpresa Logistika eta Garraioa			<b>BIDASOA:</b>
<b>ziklo luzea</b>			MAIATZAK 18
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbideak:	1., 2., 3., 4. eta 5.		MAIATZAK 24, 2. ZIKLOA
- Finantza Zuzendaritza			
- Merkataritza Zuzendaritza			
- Erakundeen Kudeaketa			
<b>bigarren zikloa</b>			
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbideak:	3., 4. eta 5.		
- Finantza Zuzendaritza			
- Merkataritza Zuzendaritza			
- Erakundeen Kudeaketa			
- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziaura. Ibilbidea:		1. eta 2.	
- Enpresa Proiektuen Garapena			

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA	Eskoriatza	ate irekiak:
<b>Lehen zikloa</b>		<b>MAIATZAK 18</b>
- Irakaslea. Haur Hezkuntza Espezialitatea		
- Irakaslea. Hezkuntza Berezia Espezialitatea		
- Irakaslea. Atzerriko Hizkuntza Espezialitatea		
- Irakaslea. Heziketa Fisikoa Espezialitatea		
- Irakaslea. Entzumena eta Mintzaira Espezialitatea (2. diplomatura soilik)		
- Irakaslea. Lehen Hezkuntza Espezialitatea (2. diplomatura soilik)		
<b>ziklo luzea</b>		
- Ikus-Entzunezko Komunikazioan Lizentziatura		
<b>bigarren zikloa</b>		
- Psikopedagogian Lizentziatura. Ibilbideak:		
- Hizkuntzen Psikopedagogia. On line eta aldika bertaratzekoa		
- Esku-Hartze Psikopedagogia. On line eta aldika bertaratzekoa		
- Giza Zientziak Lizentziatura. Ibilbideak:		
- Giza Zientziak Enpresari Aplikatuta		
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari Aplikatuta		

inshripzio epea zabalik

943 71 21 85      www.mondragon.edu